



OT-008/20-PTP-MEM Beasain-Zumarraga (Goierri)

**BEASAIN-ZUMARRAGAKO (GOIERRIKO) LURRALDE PLAN PARTZIALA
JARRAIPEN-MEMORIA
MEMORIA DE SEGUIMIENTO
PLAN TERRITORIAL PARCIAL DE BEASAIN-ZUMARRAGA (GOIERRI)**

Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza
Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroan
Vitoria-Gasteiz, noviembre 2020



AURKIBIDEA

0.- HASIERAKO OHARRAK

- 0.1.- Jarraipen-memoriaren xedea
- 0.2.- LPParen ondoren onetsitako lurralde- eta sektore-plangintza.
- 0.3.- Udal-plangintza LPPko eta 2/2006 Legeko lurralde-eredura egokitzea

I.- LURRALDE-EREDUA. LPP-AREN OINARRIZKO PROPOSAMENAK

1.- INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

- 1.1.- LPPko zehaztapenak
 - 1.1.1.- Lurzoru urbanizaezin gisa kategorizatzea.
 - 1.1.2.- Espazio babestuen eta Batasunaren intereseko lekuen antolamendu-politika
- 1.2.- LPPa LAGekin bat etortzea.
- 1.3.- LPPa LPSekin edo beste sektore-plangintza batekin integratzea (kontserbazio bereziko eremuak)

2 LANDA-HABITATA

3 HIRI-HABITATA

- 3.1.- LPPko lurralde-eredua
- 3.2.- LAG. Gidalerroak Eraldaketa Ardatzen arloan
- 3.3. Bizitegitarako kuantifikazioa, eta UDALPLANarekin alderatzea
 - 3.3.1.- Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura egokitzea
 - 3.3.2.- LAG. Bizitegitarako kuantifikazioa: LPPko eta LAGetako aurreikuspenak alderatzea
 - 3.3.3.- Bizitegitarako kuantifikazioaren ondorioak
- 3.4.- Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren arloko gidalerroak
 - 3.4.1.- LPPko lurralde-eredua eta kuantifikazioa
 - 3.4.2.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskaintza kuantifikatzea. LPPko zehaztapenen gauzatze-maila. UDALPLANarekin alderatzea
 - 3.4.3.- Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura egokitzea
 - 3.4.4.- LAG. Industria-kuantifikazioa
- 3.5.- LAG. Hiri-berroneratzea.
- 3.6.- LAG. Hiri Hazkundeko Perimetroa.

4.- PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

- 4.1.- Paisaia.
 - 4.1.1.- LPPak proposatutako eredua
 - 4.1.2.- LAG eta LPP
- 4.2.- Kultura-ondarea
 - 4.2.1.- LPPak proposatutako eredua
 - 4.2.2.- LAG eta LPP
- 4.3.- Natura-ondarea.
 - 4.3.1.- LPPak proposatutako eredua
 - 4.3.2.- LAG eta LPP
- 4.4.- Turismo-baliabideak
 - 4.4.1.- LPPak proposatutako eredua
 - 4.4.2.- LAG eta LPP

5.- BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA

- 5.1.- Ura
 - 5.1.1.- LPPak proposatutako eredua
 - 5.1.2.- Uholde-arriskuaren kudeaketa. LPS, Ibaiak eta Errekak.
 - 5.1.3.- Hornikuntza eta saneamendua.
- 5.2.- Energia
 - 5.2.1.- LPPak proposatutako eredua. Haize-energia. LPS
 - 5.2.2.- LAG, Energia



- 5.3.- Ekonomia zirkularra.
 - 5.3.1.- Hondakinen kudeaketa
 - 5.3.2.- Lurzorua baliabide gisa

6.- MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

- 6.1.- Mugikortasun multimodala
 - 6.1.1.- LPPko zehaztapenak.
 - 6.1.2.- LAG eta LPP
- 6.2.- Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - 6.2.1.- LPPko zehaztapenak.
 - 6.2.2.- Lurralde Plangintza Sektoriala (EAE, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia).
 - 6.2.3.- LAG eta LPP
- 6.3.- Bide-mugikortasuna.
 - 6.3.1.- LPPko zehaztapenak.
 - 6.3.2.- Lurralde Antolamendu Sektoriala (LPS, Arabako Errepideen Plan Integrala, eta abar)
 - 6.3.3.- LAG eta LPP
- 6.4.- Tren-, portu- eta aireportu-arloko mugikortasuna eta logistika
 - 6.4.1.- LPPko zehaztapenak.
 - 6.4.2.- Lurralde Antolamendu Sektoriala (EAEko trenbide-sare berria)
 - 6.4.2.- LAG eta LPP

7.- EKIPAMENDUAK

- 7.1.- LPPko zehaztapenak
- 7.2.- Ekipamenduen garapena

8.- ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK

- 8.1.- LPPko zehaztapenak. Esku-hartze estrategikoak
- 8.2.- Proposamenen garapen-maila

9.- ZEHARKAKO GAIK

II.- ONDORIOAK

I. Eranskina.- LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-JASANGARRITASUNEN ADIERAZLEAK.

- A.0.- Bilakaera demografikoa.
- A.1.- Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa.
- A.2.- Biztanleria-dentsitatea (orokorra eta hirikoa).
- A.3.- Hiri-eredua
- A.4.- Bizitegi-garapena. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak.
- A.5.- Etxebizitza-dentsitatea.
- A.6.- Lurzoruaren artifizializazioaren eta kalifikazioaren bilakaera.

JARRAIPEN-MEMORIA
BEASAIN-ZUMARRAGAKO (GOIERRI) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN
PARTZIALA.

0.- HASIERAKO OHARRAK

0.1.- Jarraipen-memoriaren xedea

Beasain-Zumarragako (Goierri) eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala behin betiko onartu zen irailaren 29ko 534/2009 Dekretuaren bidez.

Jarraipen-memoria honen xedea LPPko Antolamendu Arauen 3. artikuluko 2. puntua betetzea da; horretan, honako hau adierazten da: «*Lau urtean behin, Beasain-Zumarraga (Goierri) eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala idazteko eta horren jarraipena egiteko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko sailek memoria bat prestatuko dute, planaren betetze-maila eta Lurralde Plan Sektorialean eta udalaren hirigintza-plangintzan duen eragina balioztatzeko, eta hartu beharreko neurriak definituko ditu, hala dagokionean, hautematen diren desdoitzeak saihesteko. Memoria hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean aurkeztuko da, batzordeak haren berri izan dezan*».

Memoria hau da LAGen (uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onartu ziren) kapitulu handien arabera idatzi eta egituratzen den lehena, eta kapitulu horiei buruz LPPak egiten dituen zehaztapenak aztertzen ditu, baita administrazioek garatu dituzten eta Goierriko Eremu Funtzionalari eragiten dioten politika sektorialak ere.

0.2.- LPParen ondoren onetsitako lurralde- eta sektore-plangintza.

Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPa behin betiko onartu ondoren, lurralde- eta hirigintza-plangintzan eragina duten honako lege hauek onartu dira:

- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, Establezimendu komertzial handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.

Lurralde-plangintzari dagokionez, plangintza sektorialen honako plangintza eta aldaketa hauek onartu dira:

- urriaren 30eko 231/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzarako Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartu zuena.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala, ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauak behin betiko onartu eta ekainaren 30eko 6/2014 Foru Arauak aldatu zuena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa –Kantauri eta Mediterraneo isurialdea–, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala, irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zena.
- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturarako Lurralde Plan Sektoriala, apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez onartu zena.

Gainera, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako Zuzendariaren 2016ko martxoaren 18ko EBAZPENA argitaratu da, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko xedapenak zehazteari buruzkoa (2015eko irailaren 3ko Auzitegi Gorenaren sententziak baliogabetu zituen).

Azkenik, Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPa behin betiko onartu ostean, Kontserbazio Bereziko Eremu hauek izendatu dira: Oria Garaia (2012); Aizkorri-Aratz (2016); Aralar (2016).

0.3.- Udal-plangintza LPPko eta 2/2006 Legeko lurralde-eredura egokitzea

2009ko irailaren 29an LPPa behin betiko onartu ostean, behin betiko onartu da hirigintza-plangintzaren berrikuspena zortzi udalerritan: Arama (2016/10/18), Itsasondo (2010/07/29), Legorreta (2010/10/26), Olaberria (2015/05/19), Ormaiztegi (2011/08/02), Urretxu (2012/06/26), Zaldibia (2018/12/11) eta Zerain (2011/03/16). Plan horietatik, Itsasondokoak, Legorretakoak eta Zeraingoak hasierako onespina zuten LPPa indarrean jarri zenean; beraz, lehen xedapen iragankorra aplikatuz, ez zeuden bertako zehaztapenetara moldatzera behartuta. Ildo horretan, eta LPPko antolamendua onartu diren Plan Orokorretan aurreikusitako zonifikazioarekin alderatu ostean, ondoriozta daiteke, oro har, udal-plangintza LPPan ezarritako zehaztapenetara egokitu dela.

Plangintza Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea egokitzeari dagokionez, honako udalerrri hauek moldatu zuten beren plangintza LPPa onartu aurretik: Beasain (2007/10/16), Lazkao (2007/06/12) eta Legazpi (2008/06/27). Edozelan ere, bai udalerrri horietan bai gainerakoetan, —Altzaga (1990/08/23), Ataun (2005/12/26), Ezkio-Itsaso (2006/05/05), Gabiria (2005/03/23), Gaintza (1999/12/22), Idiazabal (1987/07/22), Mutiloa (1998/09/10), Ordizia (1999/07/30), Segura (1996/05/24), Zegama (2006/01/31) eta Zumarraga (2006/05/31)— plangintza ez dago LPPra egokituta, ezta, hortaz, horretan proposatutako lurralde-eredura moldatuta ere.

I.- LURRALDE-EREDUA. LPP-AREN OINARRIZKO PROPOSAMENAK

Lurralde Plan Partzialaren esparrua Beasain-Zumarraga (Goierri) eremu funtzionala da eta honako udalerrri hauek hartzen ditu: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga, baita Gipuzkoa-Araba (Aizkorri) eta Gipuzkoa-Nafarroa (Enirio-Aralar mankomunitatea) partzuergo orokorreko dagozkien lurrak ere.

LPParen memoriaren arabera, «*Ereduaren antolamendua honako oinarrizko ideia hauen inguruan egituratzen da:*

- *Eremu Funtzionalaren ingurumen- eta paisaia-kalitatea mantendu eta hobetzea, etorkizunerako aktibo garrantzitsua izateagatik.*
- *Giza kokaguneen sistema koherentea, orekatua eta EAEko hirien sisteman integratua lortzea. Sistema hori herriarteko osagarritasun funtzionalean eta hiriguneen eta landaguneen arteko harreman mota berri batean oinarrituko da, garapenari eta arlo horretako herritarren arteko kohesio ekonomiko eta sozialari laguntze aldera.*
- *Goierriko Eremu Funtzionala kanpoko garapen-ardatzetan integratuko dela eta inguruneke eremu funtzionalekin lotuko dela bermatuko duen azpiegitura-sistema garatzea. Sistema horrek, halaber, arloaren egituraketa indartu behar du, erreduaren oinarrizko elementuen arteko harreman funtzionalak hobetuko dituzten konexioen bidez.*

Idea horiek oinarri hartuta, LPPak honako helburu hauek adierazten ditu:

- *Eskualdeko baliabide naturalak eta bertako paisaia- eta ingurumen-kalitatea babestea, hobetzea eta balioestea, eskualdearen etorkizuneko garapen jasangarriko oinarrizko aktiboak direla ulertuta.*
- *Eskualde barruko eta kanpoko irisgarritasuna sustatzea eta eremuaren integrazio funtzionalaren egituraketa sustatzea, batez ere Oria Garaia-Urola Garaia dikotomia gaindituz.*
- *Burutzak garapen-eragiletzat sustatzea, burutzen arteko eta gertuko ingurunearekiko egiturazko integrazio eta integrazio formal egokia lortzea ahalbidetuko duten jarduketan bitartez, eta lortu nahi den maila berriarekin bat etorriko diren hiri-elementuak eta -funtzioak hornituz.*
- *Eskualdearen kokapenak eskaintzen dituen abantaila konparatiboak aprobetxatzea, batez ere Beasain-Ordizia-Lazkao burutzan, lurralde historikoko bi garapen-ardatz garrantzitsuenetan baitago; halaber, mailaz igotzeko eta Gipuzkoako zein EAEko Hiri Sisteman erreferente bihurtzeko aukera handiak ditu.*
- *Eremu funtzionaleko lurralde-antolamenduaren prozesuan landaguneak integratzea, landaguneen garapen ekonomikoari bide emateko eta demografia bermatzeko, betiere landaguneetako eta horiek dauden esparruetako berezitasunak mantenduz eta aipatu guneen eta ezaugarri hiritarragoak dituzten guneen arteko bereizketa-arriskua saihestuz.*



- *Eskualdearen bizitegitarako erakargarritasuna hobetzea, hiri-berriztatzearen bidez eta ingurunearen ahalmena areagotuz. Horrekin, ondo dimentsionatu eta dibertsifikatutako etxebizitza-politika egoki batekin batera eta ekipamendu- eta zerbitzu-eskaintza hobetzearekin batera, biztanleria mantentzea bermatu ahalko da, azken urteetan egon den biztanleria-galeraren joera hautsiz edo mugatuz.*
- *Lurzoru-baliabideak eskualde-izaerako jarduera ekonomikoetarako antolatzea, lurraldeak eskaintzen dituen aukeren oinarrian, gaur egungo desorekak hobetzen saiatuz eta eskari mota desberdinei erantzunez.*
- *Udalerriz gaundiko ekipamenduak, espazio libreak eta zerbitzu-azpiegiturak antolatzea, lurraldea egituratzeko eta eremu funtzionaleko gizarte-ongizatea zein ingurumen-kalitatea hobetzeko.*

1.- INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

1.1.- LPPko zehaztapenak

LPPak lurzoruaren lehen eta oinarrizko egituraketa ezartzen du, lurralde-jardueren euskarri gisa, eta bi multzo handi bereizten ditu: ingurune fisikoari dagozkion lurzoruak eta hiri-garapenerako lurzoruak. Lurralde-egitura horretan definitzen dira Ingurune Fisikoa, Azpiegiturak eta Kokaguneak antolatzeak osagaiak, eta, Ingurune Fisikoaren kasurako, honako kategoria multzo hauek sistematizatzen dira:

- a) Ingurune Fisikoaren Antolamendua
 - a.1. Garrantzi handieneko eremuak.
 - a.2. Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra.

1.1.1.- Lurzoru urbanizaezin gisa kategorizatzea.

- a.1. «Garrantzi handiagoko eremu» gisa kategorizatzea

LPPak kategoria multzo horretan sartzen ditu babes-jarduketak eta hobekuntza espezifikoak behar dituzten eremutat jotzen diren lurzoruak, eta, beren ezaugarrien arabera, Babestu beharreko, Hobetu beharreko edo Leheneratu beharreko Eremu gisa sailkatzen dira.

- Babestu beharreko eremuak. Honako azpikategoria hauek definitzen dira:
 - **Interes Naturaleko Eremuak.** Kategoria honen barruan sartzen dira EAEko Naturagune Babestuak (Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz Bereziak), Natura 2000 Sarea, Interes Naturalistikoko Espazioak eta eremu funtzionaleko beste gune interesgarri batzuk.
 - Naturagune babestuak: Aralar parke naturala. Aizkorri-Aratz parke naturala.
 - Natura 2000 sarea: ES2120002 Aizkorri-Aratz, ES2120005 Oria ibaiaren goi-arroa, ES2120011 Aralar.
 - Interes Naturalistikoko Espazioak eta beste gune interesgarri batzuk: Murumendi, Gorostiaga, Aralar-Aizkorri korridorea.
 - **Interes zientifiko-kulturaleko eremu eta puntuak.** Kategoria honetan sartzen dira Interes Geologikoa duten eremu eta puntuak, Interes Arkeologikoa duten puntuak eta Interes Paleontologiko edo Arkeologikoa duten Haitzuloak.
 - Interes geologikoa duten eremuak: Aralar, Aizkorri
 - Interes Geologikoa duten puntuak: 14 dira «Interes Geologikoa duten Gipuzkoako puntuak» (Gipuzkoako Foru Aldundia)
 - Monumentu megalitikoak eta haitzuloak: 42 dolmen, 26 tumulu, 2 cromlech, zista 1 eta 8 monolito eta 27 haitzulo, Gipuzkoako Karta Arkeologikoan islatu bezala.
 - **Nekazaritza- edo ingurumen-interesa duten eremuak.** Kategoria honen barruan sartzen dira Nekazaritza Babeserako eremuak eta lehen mailako produktibitateko aukera handiak dituzten edo ingurumen-balio handia dutenak.
 - Esparru hauek dira: Seguraren ibarrak, Zerain, Mutiloa, Estandaren ibarrak Gabirian, Lazkaoren ibarra Olaberria inguruan, Lazkaomendiko mendi-bizkar eta mazelak, Olaberriko eta Idiazabalko mazelak, Arama, Gaintza eta Loinazko mendi-bizkar eta mazelak, Beasainen.

- **Interes Hidrologikoa duten eremuak.** Lurrazaleko urei dagokienez, kategoria honetan sartzen dira urtegiak, ibaien ibilbideak eta babes-zerrendak, EAeko Ibaiertzak eta Errekak Antolatzeko LPSan ezarritako tarteen arabera; eta Lurpeko Urei dagokienez, akuiferoen urrakortasun-arrisku altua edo oso altua duten eremuak.

- Hobetu edo leheneratu beharreko eremuak. Hiru azpikategoria bereizten dira:

- **Ekosistemak hobetzeko eremuak.** Natura Intereseko Eremuen kategorian sartzen ez diren baso naturalak dira, baita aurrekoekin inguratutako zuhaixka-formazioak ere, horien kokapen topografikoarengatik eta potentzialtasunarengatik, lehen aipatutako kategoriara iristeraino alda daitezkeenak.

- **Baso-kontserbazioko eremuak.** Kategoria honetan sartzen dira gaur egun malda handia, sakonera txikia edo higadura-arriskua duten lurzoruen gainean dauden baso-masak dituzten esparruak.

- **Erabiltzen ez diren Meatzeak, Harrobiak eta Hondakindegia.** Ingurumen-leheneratzea beharrezkoa dela jotzen den eremuak dira. Eredua etorkizunerako proiektzioa denez, kategoria hau jardunean dauden ustiategi jakin batzuei esleitzeak adierazten du, ustiapen-lanak amaitu ostean, eremu horiek leheneratu egin beharko direla.

- EAeko Korridore Ekologikoen Sarea (diseinatzeko)

Aurreikusita dago korridore-sare bat sortzea (ibai-, baso- eta nekazaritzako-korridoreak, eta abar), eremu funtzionaleko natura-interes handieneko espazioen artean konexio ekologikoak eratzeko (Aralar-Aizkorri - Gorostiaga-Murumendi), eta baita hurbileko beste eremu funtzional batzuekiko lotura ere, horietako fauna- eta flora-ondarea mantentzen dela bermatzeko. Korridore ekologikoen sare hori garatzeko, lurralde-konektagarritasuna hobetzeko ekintzak egin behar dira eta horren funtzionaltasuna bermatuko duen erabilera- eta jarduera-araudia ezarri behar da.

a.2. Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra

Kategoria multzo honetan 1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek definitzen dituzten kategoriak nahiz baldintzatzaile gainjarriak sartzen dira (haiek ziren LPPa onartu zen unean indarrean zeuden LAGak):

Kategoriak:

- Babes bereziko eremua.
- Ingurumenaren hobekuntza.
- Basogintza
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-lurrak eta landazabala.
- Larre menditarrak.
- Azaleko uren babes.

Baldintzatzaile gainjarriak:

- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Higatu daitezkeen eremuak.
- Urez bete daitezkeen eremuak.
- Naturagune Babestuak eta Natura 2000 Sarearen barruan dauden gunek.

1.1.2.- Espazio babestuen eta Batasunaren intereseko lekuen antolamendu-politika


Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPa behin betiko onartu zenetik, eta eskuragarri dauden iturriak kontsultatu ostean, hiru garapen-lerro esanguratsu daude, LPPan babestu beharreko eremu esanguratsu gisa adierazten diren espazioetan:

- EAEko hezeguneen Inbentarioaren aldaketa (Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez), Hezeguneen LPSko I. eta III. multzoetan jasotako hezeguneak berrikusten, mugatzen eta kartografiatzen dituen.
- Oria Garaia (2012), Aizkorri-Aratz (2016) eta Aralar (2016) espazioak Kontserbazio Bereziko Eremutat aitortzea
- -Bi babes-figura biltzen dituzten naturagune babestuei dagokienez, Natura Kontserbatzeko Euskal Legearen Testu Bateginaren 18. artikuluan honako hau xedatzen da: «Naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, gunehorien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin». Hortaz, Aizkorri-Aratz eta Aralar parke naturalen Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak berrikusi egin beharko dira, Kontserbazio Bereziko Eremutat deklaratu diren heinean.

Aipatzekoa da administrazioek gauzatu dituzten ingurumena babesteko politikak koherenteak direla LPPan zehaztutakoarekin:

- EAEko hezeguneen Inbentarioaren aldaketak eremu funtzionaleko hezeguneak babesteko politikan sakontzen du,
- Adierazi diren Batasunaren intereseko lekuak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea izapidetzean, dagozkien kontserbazio-neurriekin, LPPra egokitzen den espazioak babesteko politika garatzen da, kontserbazioaren xede diren habitat eta espezieen kontserbazio-egoera eta -helburuak mugatzeari, identifikatzeari eta definitzeari buruzko lan tekniko eta zientifikoetan oinarrituta.

LPPko Ingurune fisikoaren antolamendua





1.2.- LPPa LAGekin bat etortzea.

Ingurune Fisikoaren Antolamenduari eta antolamenduaren kategoriei dagokienez, LAGen 3. artikulua honako hau adierazten du:

3.4.a.2) artikulua.- Lurralde-plangintzak antolamendu-kategorien zonakatzea eta baldintzatzaile gainjarriak mugatuko ditu eta dokumentu honetan ezarritako erabileren arauketa haren arlo funtzionalera egokituko du. Baldin eta lurralde-plangintzaren eremuaren barruan ingurumen-balioengatik edo Urdaibaiko Biosfera Erreserban egoteagatik babestutako guneren bat badago, horien sektore-legerian jasotako zonakatzea eta erabilera-arauketa txertatuko ditu.

LPPan egiten den kategorizazioa bat dator LAGekin. Baldintzatzaile gainjarriei dagokienez, LAGetan kontzeptu berriak daudenez, LPPan definitzeke geratu dira klima-aldaketari loturiko arriskuak, baita korridore ekologikoak eta natura-interesa duten funtzio anitzeko beste espazio batzuk ere.

Espazio babestuei dagokienez, LPPak Baliabide Naturalak Antolatzeko Planari lotzen dizkio zonakatzea eta erabilera-araudia, dokumentuan bertan txertatu gabe.


Bestalde, ingurune fisikoaren antolamenduaren arloko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen ekarpenetako bat Azpiegitura Berdearen kontzeptua da. Lurralde-eskalan kontzeptu hori osatzen duten elementuak, funtsean, naturagune babestuak edo interesa duten espazioak dira, eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoengatik eta sarean lotzen dituzten korridore ekologikoengatik. LAGetako 4. artikulua, «Azpiegitura Berdea eta ekosistemen zerbitzuak» izenekoak, besteak beste, honako hauetara behartzen ditu Lurralde Planak:

4.6. artikulua.- Lurralde Plan Partzialen kasuan:


- a) *EAEko eta eremu funtzionaleko eskalari dagokion azpiegitura berdea zedarritzea, eta hirigintza-plangintzan baldintzak ezartzea, toki-mailara arte jarraitu ahal izan dezan. Hiri-garapeneko perimetroen inguruko eraztun berdeak haien eskalako azpiegituraren zaitzat hartuko dira.*
- b) *Jarraitutasun ekologiko eraginkorra lortzeko irizpide, neurri eta ekintzak ezartzea: landaredia eta ekosistemak leheneratzea, nekazaritza-matrizea iragazkortsu eta konektore ekologikoak eratzen dituzten elementuak berrezartzea, eta nekazaritza-erabilera tradizionalak mantentzea.*
- c) *Azpiegitura berdeak azpiegitura grisekin dituen interakzio-puntuak identifikatzea eta interakzio horiek kudeatzeko neurriak ezartzea.*
- d) *Ekosistemen zerbitzuen ebaluazioa kontuan hartzen duten adierazleak jasotzea.*
- e) *Lurralde-eskalako proposamenak osatzeko, dagozkien betearazpen-neurriak eta udal-mailaz gaindiko erakunde esku-hartzailearen finantzaketa-neurriak jasoko dira LPPan. Horretarako, erakundeak koordinatuta arituko dira, proposamenok programatu eta finantzatzeko.*

Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPak korridore ekologikoak diseinatzearen beharra jasotzen du, «Garrantzi handieneko eremuak» osatzen dituzten elementuak izaki, eremu funtzionalean natura-interes handiena duten espazioak fisikoki eta funtzionalki konektatzeko. Hori koherentea da LAGetan planteatzen denarekin, baina egia da ez dela azpiegitura berderik identifikatzen berez, eta LAGek LPSen kargu uzten duela korridore ekologikoak definitzea, baita lehen adierazi diren 4.6. artikuluko gainerako puntuak ere. Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPak berrikuspenaren unean egin beharko ditu lan horiek.

Azpiegitura berdea. LAG



Azpiegitura berdea. LPP



1.3.- LPPa LPSekin edo beste sektore-plangintza batekin integratzea (kontserbazio bereziko eremuak)

LPPak LPSaren esku uzten du uholde-arriskuguneak eta ibai zein erreketako babes-zerrendak antolatzea, Ibai eta Erreken Antolamendurako LPSko tarte araberako zabalerarekin. Halaber, Hezeguneetarako LPSaren esku uzten du Goierriko eremu funtzionalean dauden hezeguneen antolamendua. Hortaz, LPParen eta aipatutako dokumentuen arteko integrazioa erabatekoa da.

Natura babesteko plangintza sektorialari dagokionez, lehen ere adierazi den bezala, Oria Garaia, Aizkorri-Aratz eta Aralar LPPa onartu ondoren deklaratu ziren Kontserbazio Bereziko Eremu. Hori dela eta, zenbait desberdintasun daude mugetan KBEen eta LPPko babes bereziko kategoriaren artean; baina, antolamenduari dagokionez, espazio horietako babes-figuren eta LPParen arteko integrazioa Baliabide Naturalak Antolatzeko Planen nahitaezko berrikuspenaren bitartez gauzatuko da, lehen ere aipatu den moduan.

Azkenik, Nekazaritza eta Basogintzako LPSa LPParen ondoren onetsi denez, azken horretan balio estrategiko handiko lurzoruen kategoria ez dator guztiz bat LPSak lurzoru horretarako egiten duen mugatzearekin, eta LPPa ildo horretan egokitu beharko da berrikusten denean.

2 LANDA-HABITATA

Ingurune fisikoaren antolamenduaren bitartez, LPPak honako xede hau du:

Mesede egitea orain arte erabili ez diren edo nahikoa aprobetxatu ez diren baliabide naturalen aktibazioari, landa-ingurunea garatzeko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko estrategia orokorraren barruan.

Bestalde, Lurralde Antolamenduaren Eredua eratzeko gakoaren artean, Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPak eremu funtzionaleko landaguneen rola nabarmentzen du, eta honako hau adierazten du:

Hirigintza-, arkitektura- eta ingurumen-balio nabarmenak dituzten landa-kokagune asko daude, eta horiek egotea bermatu behar da, eta horietan bizitegi-eskaintza alternatiboak izan behar dira, eremu hiritarretakoez bestelakoak, haien ezinbesteko osagarria baitira.

Aurrekoaren ondorio gisa, hiri-kokaguneen definizioan, LPPak Landaguneetako hiriguneak bereizten ditu eta kategorizazio hori aplikatzen die honako udalerrri hauei: Arama, Altzaga, Gaintza, Ataun-San Gregorio, Olaberria (hirigunea), Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itsaso. Horietan, LPPak eremu funtzionaleko dentsitate baxuko eskaintza osorik garatzea proposatzen du (betiere 2/2006 Legearen mugen barruan), halako garapenak gainerako hiriguneetan jarduketa puntualetara mugatuz, hala nola hiri-garapenaren ertz edo mugei loturiko arazoak konpontzeko, eta abar.

Aipatutako udalerriei dagokienez, Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPa behin betiko onartu zenetik, plangintza orokorra berrikusi da Araman (2016/10/18), Olaberrian (2015/05/19) eta Zerainean (2011/03/16). Hiru kasuetan, hiriguneetako landaguneen babesa kontuan hartzen da eta garapen txikiak proposatzen dira, dentsitate baxukoak, betiere Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen mugen barruan, eta lehendik eraikita dagoen ondarea birgaitzea sustatzen da. Gainera, Arama eta Olaberriaren kasuan, Nekazaritza, Basogintza eta Landazabala kategoria jaso da, Balio Estrategiko Handiarekin, Nekazaritza eta Basogintzako LPSak egiten duen mugatzearekin.

Nabarmentzekoa da LPPak «Landagune» terminoa erabiltzen duela landa-esparruko gune guztiak aipatzeko, oro har. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean definitutako terminoa izaki, horren erabilera Legean adierazten diren baldintzak betetzen dituzten guneetara mugatu behar da, hots: *sei eta hogeita bost baserri artean dituen espazio publiko baten inguruan egituratzen den multzoa*, lurzoru urbanizaezinean. Goierriko eremu funtzionalean, landa-esparruetako gune gehienak hiri-lurzoru gisa sailkatuta daude eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dauden gune bakarrak honako hauek dira: Aztiria (Gabiria), Ergoiena (Ataun) eta Arinberriaga (Ataun).

3 HIRI-HABITATA

3.1.- LPPko lurralde-eredua

Kokagune-sistema koherente eta integratua lortzeko, LPPak eremu funtzionaleko guneak sailkatu egiten ditu: burutza-sistemako hiriguneak; tamaina ertaineko guneak dituzten udalerriak; eta landa-eremuetan dauden hiriguneak.

- Burutza-sistemako guneak honako hauek dira: Beasain, Ordizia, Lazkao, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi.
- Tamaina ertaineko guneak dituzten udalerrien kategoria aplikatzen zaie honako hauei: Legorreta, Itsasondo, Zaldibia, Ataun-San Martin, Idiazabal, Segura eta Ormaiztegi.
- Azkenik, landa-eremuetan dauden guneak, Landa Habitataren apartatuan adierazi bezala, honako hauek dira: Arama, Altzaga, Gaintza, Ataun-San Gregorio, Olaberria (hirigunea), Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itsaso.

Esku-hartzeko moduei dagokienez, honako hauek definitzen dira: Babesteko eta birgaitzeko eragiketak; Hiri-eraldaketa eta berroneratzeko eragiketak; Garapen berriko eragiketa lehenetsiak; eta Zentralitateak sustatzeko eragiketak.

Bestalde, LPPak Hiri Zentralitatearen Ardatzak edo Hiriarteko Artikulaziorako Ardatzak honela definitzen ditu: ibilgailuen zirkulaziorako bide jakin batzuk hiri-jarraitutasuneko ardatz bihurtzean sortu diren elementuak dira, zuhaizti edo zuhaizdun ibilbide gisa ulertuta, oinezkoentzako zein

bizikletentzako, espaloiekin, errodadura-bandarekin eta zinta berdearen gaineko zuhaitz-illarekin, burutzak hurbilen dauden hiriguneekin lotzeko. Zehazki, N-1 zaharraren gainean, Legazpi eta Zumarraga arteko GI632 errepidean, Zaldibia-Ordizia eta Beasain-Idiazabal tartetean proposatzen dira, lurte industrialdearen bidez.

3.2.- LPP eta LAG: Gidalerroak Eraldaketa Ardatzen arloan

Hiri ertainak eta haien lurralde-ingurunea indartu, artikulatu eta modu jasangarrian garatzeko, LAGek «Eraldaketa Ardatzak» deituriko figura sartzea proposatu dute. Eremu batez ere linealak dira, garraio kolektiboaren euskarria dutela, eta hiri ertainen garapen-prozesuak artikulatuko dituzte, haien protagonismoa areagotuta jasangarritasun-irizpideei jarraikiz eta hiriek gainezka egiteko prozesuak saihestuta, haran-hondoetako eremu berezietan.

9. kapituluan, «Eraldaketa-ardatzen arloko gidalerroak» deritzonean, honako hau adierazten dute LAGek:

- 1.– Lurralde Plan Partzialek, Eraldaketa Ardatzei dagokienez, honako zehaztapen hauek garatuko dituzte:
 - a) Antolamendu-irizpideak eta Eraldaketa Ardatzak konfiguratzeko beharrezkoak diren ekintzak barnean hartzea eremu funtzionalerako burutzen eta azpiburutzen hiri-sistemaren definizioaren osagarri gisa.
 - b) Eraldaketa Ardatzetan txertatzen diren ibai-ibilguak eta urbazterreko espazioak korridore ekologiko bihurtzea.
 - c) Eraldaketa Ardatzetan honako hauek biltzea: garraio kolektiboko sistemetarako euskarri diren elementu linealak, hiri-berrikuntzako eremuak eta hirigintza-erabilerarik gabe izan behar diren espazio libreak.
 - d) Urbanizazio jarraituak ekiditea, urbanizaziorik gabeko lurzoru-tarteak libre utzita, lurralde-elementu natural eta hirikoen artean oreka bat finkatuz.
 - e) Saihesbideak edo errepide alternatibo berriak egin direlako funtzionaltasuna galdu duten errepide-tarteak berriz diseinatzea, tarte horiek ekobulebar bihurtuta, Eraldaketa Ardatzen hiri-eremuetako bide-euskarri izateko.
 - f) Sakabanatutako sareak berritu, trinkotu eta artikulatzea lehenestea, gunen tradizionalen hiri-irudia hobetu eta nortasun-ezaugarriak indartuta, hazkunde berrien aurrean.
 - g) Soilik garraio kolektiboko sistemetarako izango diren plataformak txertatzea, geltokiei hiri-zentralitateko nodoen izaera emanez, etxebizitzetarako, lantokietarako eta ekipamenduetarako askotariko erabilerekin, baita aparkalekuetarako erabilerarekin ere, oinezkoen eta bizikleten ardatz nagusiekin trukea eta konexioa errazteko lagungarri izan daitezkeenak.
 - h) Hirigintzako eta arkitekturako diseinu bioklimatikoaren printzipioak sustatzea, Eraldaketa Ardatzen ingurumen-jasangarritasuneko elementutzat hartuta.

2.– Eraldaketa-ardatzak jasotzen dituzten Lurralde Plan Partzialetan aintzat hartuko dira Memoriako 6.1.3. apartatuko IV. puntuan, «Eraldaketa-ardatzak, eremu funtzionalen arabera» deritzonean, jasotzen diren gidalerroak.

3.– Lurralde-eskalako *proposamenak* osatzeko, dagozkien betearazpen-neurriak eta udal-mailaz gaindiko erakunde esku-hartzailearen finantzaketa-neurriak jasoko dira LPPan. Horretarako, erakundeak koordinatuta arituko dira, proposamenok programatu eta finantzatzeko.

Goierriko eremu funtzionalerako honako zehaztapen hauek proposatzen dira:

- d) Goierriko Eremu Funtzionala. Urolako eta Oriako Eraldaketa Ardatzen arteko konexioa

Eremu Funtzionala bi ardatzen inguruan egituratzen da, eta ardatz horietan metatzen dira biztanle gehienak. Lehenengo ardatza iparraldetik hegoaldera doa Oriaren haranean barrena, eta N-I errepidean oinarritzen den eskala handiagoko korridore batean sartzen da. Korridore hori hiri izaerako kate bat da, Tolosaldeko eta Donostialdeko eremuetaraino. Bigarrena ekialdetik mendebaldera doa, eta Beasain-Ordizia-Lazkao errotulan bat egiten du lehenengoarekin; Urolako Eraldaketa Ardatzarekin konektatzen du, bigarren hirigune garrantzitsuenera (Zumarraga-Urretxu) iristeraino, eta, hortik aurrera, Durangorantz luzatzen da.

Proposatutako Eraldaketa Ardatza goian aipatu ditugun bi ardatz horiek zehaztutako hiri-egituraren oinarritzen da. Ardatzean zehar dauden garapenak finkatzea eta kontzentratzea planteatzen da bertan, Beasain-Ordizia-Lazkao nodoaren garapenak (Olaberria eta Idiazabal bertan txertatutako lirateke funtzionalak) eta Zumarraga-Urretxuri eta Legazpiri dagozkionak artikulatuz, eta hirigune sendoa eratuko du maila handiagoko hiri-eremu batean.

Ardatz hau antolatzeko planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

d.1 Ordizia-Beasain trenbide-ingurabidea arloko administrazioaren definizioaren arabera gauzatzea, N-1 errepidearen alboan, eta Ordiziako geltoki berria ere gauzatzea.

d.2 Hainbat gune konektatzen dituzten hiriarteko bideen gaineko ekobulebar bat garatzea, funtsean, Zumarragatik Ormaiztegiara doan GI-2632, Ormaiztegitik Beasainera doan GI-2632 eta Ordiziatik Tolosako eremu funtzionalera doan GI-2131 errepideak oinarri hartuta, aldi berean lotura finkatuz Debako Eraldaketa Ardatzarekin eta AP-1ekin, GI-632 errepidea Zumarragatik Bergararaino luzatuta, eta Zumarraza eta Azkoitia arteko konexioa hobetuta.

d.3 Ardatzean barrena dauden guneak artikulatzen dituzten errepideak konfiguratzeko, oinezkoentzako eta bizikletentzako sareetan artikulatuak eta aldiriko trenen sarearekin eta errepidezko garraio publikoarekin konektatuta.

d.4 Oria ibaiaren ibilgua eta haren arro isurlea leheneratzeko prozesua lehenestea, korridore ekologiko eta paisajistiko gisa, jardun ororen irizpide eta helburuen artean bilduta Ardatzaren beraren ingurumen- eta ekologia-balioak hobetzea eta berreskuratzea.

d.5 Eremuan dauden naturagune garrantzitsuak babesteko eta indartzeko jarduna bermatzea, batik bat Aizkorri-Aratzeko eta Aralarreko Parke Naturalak eta haien ingurunea, hirigintza-garapenak definitutako Eraldaketa Ardatzen gaineko hirigintza-garapenak kontzentratzearen bidez.

d.6 Eraiki gabeko tarte libreak okupazio berrietatik babestu behar dira, eta egungo kokalekuen finkapena eta artikulazioa lehenetsi, Lurralde Plan Partzialean definitutako lurralde-ereduari jarraikiz.

LPPko Hiri Zentralitateko Ardatzen edo Hiriarteko Egituraketa Ardatzen definizioa, funtsean, bat datoz LAGetan definitutako Eraldaketa Ardatzarekin, zehaztapen gehienak bat baitatoz, eta horrek erraztu egiten du arlo horretan proposatutako lurralde-helburuak lortzea. Nabarmenezkoa da LPPko «Garapen gabeko korridoreak» edo «Hiri-etenak» definizioa, hiri-garapenen jarraitutasunean haustura sortzeko helburua duena; hori bat dator Goierriko eremu funtzionaleko Eraldaketa Ardatzaren antolamendurako gidalerroen d.6 puntuarekin. LPPa LAGekin erabat lerrotzeko, Hiri Zentralitateko Ardatz gisa definitzen diren esparruen doitze-maila aztertu beharko litzateke, eta ekobulebarraren kontzeptua erabili beharko litzateke, esparru horien barruko bideak diseinatzeko orduan.

3.3. Bizitegitarako lurzorua

Adierazi den moduan, kokagune-sistema koherente eta integratua lortzeko, LPPak eremu funtzionaleko guneak sailkatzen ditu: burutza-sistemako hiriguneak; tamaina ertaineko guneak dituzten udalerriak; eta landa-eremuetan dauden hiriguneak.

- Burutza-sistemako guneetan hazkunde trinkoak daude eta hiri-berroneratzeko eragiketak lehenetsiko dira; horiek, kasu batzuetan (Lazkao), garapen berriko eragiketekin osatu ahalko dira. Zumarraza-Urretxu eremuan ez da hazkunde esanguratsurik planteatu behar, haietan dentsifikazio-maila altua lortu baita.
- Tamaina ertaineko guneak dituzten udalerrien kategorian, hirigune historikoak finkatzea eta horiek dentsitate ertaineko garapen gehigarri txikietan integratzea proposatzen da. Halaber, burutza buxatuenetako eremuen garapenak tamaina ertaineko guneetarantz (Lazkao, Ormaiztegi eta Idiazabal) orientatzea proposatzen da. Hortaz, azken hiru udalerri horiek hazkunde hautakorreko udalerrizat hartuko dira, eta, horietarako, naturalki espero izatekoa denaz gaindiko hazkundera proposatzen da. Zehazki, 500 etxebizitza proposatzen dira Lazkaon, 300 etxebizitza Ormaiztegin eta 100 etxebizitza Idiazabalen.
- Azkenik, landa-eremuetako guneetan, Landa Habitatari buruzko apartatuan adierazi den moduan, dentsitate txikiagoko alternatibak proposatzen dira, ezin izango direnak gainerako kategorietan proposatu, oso modu puntual eta justifikatua izan ezik, oso arazo zehatzak konpontzeko. Proposatutako habitat alternatiboak honako hauek dira: Ataun (60 etxebizitza), Ezkio-Itsaso (60 etxebizitza) eta Gabiria (60 etxebizitza)

Esku hartzeko moduei dagokienez, Babes- eta Birgaitze-eragiketak, Hiri Eraldaketako eta Berroneratzeko eragiketak eta Garapen Berriko Eremuak aipatzen dira.

- Lehenak birgaitzeko laguntza-programen bitartez garatzen dira eta hirigune zein hirigune historikoetan zentratzen dira.
- Hiri Eraldaketako eta Berroneratzeko eragiketen artean, honako hauek proposatzen dira:
 - Ordizia: San Bartolome auzoa bizitegi erabilerarako birmoldatzea



- Ordizia-Beasain: CAFeko lurzoru industrialen zati baten eta Errugbi Zelaiaren erabilera bizitegitarako, hirugarren sektorerako eta horniduratarako aldatzea.
 - Ormaiztegi: Oximex-eko lurzoru industrialen erabilera aldatzea, Alegiko hirigunearen ondoan.
 - Zumarraga: Zumarragako Rojo eta Zaldua eta Forjas eremuen erabilera bizitegi-erabilerara aldatzea.
 - Legazpi: Patricio Elorza paper-fabrikako lurzoruak bizitegitara birmoldatzea.
- Garapen Berriko Eremu Lehenetsien artean, honako hauek dira bizitegitarako gaitasun handiena dutenak:
- Ordizia: San Juan eremua
 - Beasain: Agauntza, Errekarte I eta Ugartemendi
 - Zumarraga: Eizaga Berri 1 eta 2
 - Legazpi: Azpikoetxe, San Martin, Goialde, Urtatza-Zaharpe eta Urtatzola
 - Lazkao-Beasain: Lazkaoko hirigunearen eta N-1 errepidearekiko loturaren artean
 - Ormaiztegi: hirigunearen mendebaldeko esparru bat eta Ormaiztegi Ibarreko beste esparru bat.
 - Idiazabal: hirigunearen ipar-ekialdea, autobidearen eta errepidearen artean.

Azkenik, etxebizitza-politikari dagokionez, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi interes lehenetsikotzat hartzea proposatzen da, babes publikoko etxebizitzetarako lurzoru antolatu, sustatu eta kudeatzeko; hala, Legeak ezarritako erreserbak aplikatzea proposatzen da, biztanle-ehunekoa edozein dela ere. Legorreta, Itsasondo, Zaldibia, Ataun, Segura eta Zegama udalerriak interesekotzat hartzen dira etxebizitza-jarduketarako publikoak garatzeko, aurrekoekiko izaera osagarriarekin. Gainerako udalerrietan, babestutako etxebizitzaren garapen txikia egotea aurreikusten da, nahiz eta ez den baztertzeko aukerako jarduketak gauzatzea.

Aurreko proposamenen egungo egoerari dagokionez, honako hau adieraz daiteke:

- Ordiziako San Bartolome auzoa birmoldatzea eta CAFeko lurzoru industrialen zati baten erabilera aldatzea Beasain-Ordizia-Lazkao erpinetako trenbidearen trazadura aldatzearen mende dago, eta azken hori, aldi berean, baldintzatuta dago hein handi batean, eragiketa horrek inpaktu handia izan dezakeelako eremu funtzionalerako oso garrantzitsua den jarduera ekonomiko batean, hots, CAFen. Birmoldaketa hori ez da gauzatu eta LPParen berrikuspenean proposamena berriro aztertu behar dela jotzen da, batez ere horretan aurreikusten diren erabilerei dagokienez.
- Zumarragako Rojo eta Zaldua eta Forjas eremuetako erabilera bizitegitara aldatzea hirigintza-plangintzan jasota dago eta planifikatutako etxebizitza gehienak eraikitzen ari dira jada.
- Patricio Elorza paper-fabrikaren esparrua bizitegi-lurzoruetarako birmoldatzeko eragiketa ere jasota dago hirigintza-plangintzan, baina horren garapena hasi gabe dago.

3.3.1. Bizitegitarako kuantifikazioa, UDALPLANarekin alderatzea

Hurrengo taulan LPPak proposatzen duen bizitegi-kuantifikazioaren eta 2019ko Udalplaneko datuen arteko konparazioa egiten da:

	Ud.2009	LPP (Goierri) (2009)				Udalplan, 2019		
		8 urtera		16 urtera		Egungoa k	Aurreikusia k	Lizentzia k
	Egungoa k	gehiene z	minimo a	gehiene z	minimo a			
Alzaga	44	26	16	35	21	45	6	0
Arama	52	24	14	32	19	52	26	0
Ataun	605	215	155	286	206	597	204	1
Beasain	5.744	1.255	862	1.669	1.146	6.141	1.270	92
Ezkio- Itsaso	134	130	96	173	128	155	64	0
Gabiria	97	108	83	144	110	106	41	0
Gaintza	26	22	13	29	17	28	0	0
Idiazabal	813	341	250	454	333	813	40	0
Itsasondo	305	103	63	137	84	344	141	0
Lazkao	2.199	863	709	1.148	943	2.492	572	63
Legazpi	1.710	875	606	1.164	806	3.875	1.072	10
Legorreta	680	157	103	209	137	646	191	0
Mutiloa	59	30	18	40	24	64	6	0
Olaberria	342	166	101	221	134	510	81	9
Ordizia	4.035	893	614	1.188	817	4.497	258	30
Ormaizte gi	498	419	356	557	473	511	254	1
Segura	640	120	77	160	102	641	42	0
Urretxu	2.819	565	381	751	507	2.622	403	22
Zaldibia	464	153	99	203	132	648	165	0
Zegama	576	177	118	235	157	644	139	0
Zerain	51	37	22	49	29	51	36	0
Zumarrag a	4.320	981	674	1.305	896	4.415	747	0
GUZTIRA	26.213	7.660	5.430	10.189	7.221	29.897	5.758	228

3.3.2.- Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura egokitzea

Bizitegi-ereduari dagokionez, honako hau nabarmentzen da:

- Batetik, Urretxun (eremu funtzionaleko burutza-sistemako gunek gisa kategorizatuta dago), HAPOak, LPPan zehaztutakoari jarraikiz, ez du planteatzen garapen berririk, baina bai zenbait jarduketa, hiri-lurzoru finkatugabeetan. Aurreikusitako bizitegi-gaitasuna LPPan kalkulaturako kuantifikazio maximoaren azpitik dago.
- Bestalde, Zaldibia eta Ormaiztegi tamaina ertaineko gunek duten udalerrik gisa kategorizatuta daude. Zaldibian, hirigintza-plangintzak ez du hiri-garapen berririk planteatzen, baina Ormaiztegiako zenbait bizitegi-garapen proposatzen ditu. Bi kasuetan, garapen berriak bat datoz LPPko bizitegi-garapeneko proposamenekin.
- Azkenik, Araman, Olaberria eta Zerainen (landa-esparruetako gunek gisa kategorizatuta daude), hirigintza-plangintzak, LPPan proposaturakoari jarraikiz, dentsitate txikiagoko garapenak proposatzen ditu. Hiru kasuetan, LPPko bizitegi-kuantifikazioa betetzen da.

3.3.3.- LAG. Bizitegitarako kuantifikazioa: LPPko eta LAGetako aurreikuspenak alderatzea

Bizitegi Kuantifikazioaren arloko Gidalerroei dagozkien LAGetako 13. artikulua, Lurralde Plan Partzialei dagokienez, honako hau adierazten du:

13.2.f) artikulua. Bizitegi-kuantifikazioa lurralde-plan partzialetan.

1. Lurralde Plan Partzialetan Eremu Funtzionaleko esparruaren barruko udalerri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatu beharko da, eta, zehatzago, lurralde-ereduaren osagaia.
2. Lurralde Plan Partzialen kasuan, erabilitako koefizienteak Eremu Funtzionalaren ezaugarri espezifikoetara egokitu ahalko dira. Halaber, Eusko Jaurlaritzak erabilitako koefizienteak egokitu ahalko ditu arauz Autonomia Erkidegoaren esparru orokorraren arabera.

Ondorengo taulan Beasain-Zumarraga (Goierri) LPPko aurreikuspenak islatzen dira, baita eremu funtzional hori osatzen duten udalerrietarako LAGetako aurreikuspenak ere:

	Goierriko LPP (2009)		Udalplan, 2019	LAG, 2019
	8 urtera			Bizitegi-gaitasuna, 8 urtera
	gehienez	minimoa	aurreikusiak	gehienez
Altzaga	26	16	6	36
Arama	24	14	26	42
Ataun	215	155	204	161
Beasain	1.255	862	1.270	1435
Ezkio-Itsaso	130	96	64	92
Gabiria	108	83	41	82
Gaintza	22	13	0	8
Idiazabal	341	250	40	321
Itsasondo	103	63	141	62
Lazkao	863	709	572	577
Legazpi	875	606	1.072	417
Legorreta	157	103	191	126
Mutiloa	30	18	6	77
Olaberría	166	101	81	55
Ordizia	893	614	258	662
Ormaiztegi	419	356	254	150
Segura	120	77	42	227
Urretxu	565	381	403	690
Zaldibia	153	99	165	97
Zegama	177	118	139	196
Zerain	37	22	36	33
Zumarraga	981	674	747	470
GUZTIRA	7.660	5.430	5.758	6.016

3.3.4.- Bizitegitarako kuantifikazioaren ondorioak

LAGetako kuantifikazioak lehen aurreikusitako etxebizitza-beharrak berraztertu ditu, kalkulu-parametroak eguneratutako jasangarritasun-irizpideen arabera moldatuz. Eta emaitza gisa, lortutako zifrak, oro har, txikiagoak dira Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPak kalkulaturakoak baino. Lazkao, Ormaiztegi, Idiazabal, Ataun, Ezkio-Itsaso eta Gabiriaren kasuan, diferentzia hori LPPak aplikatzen duen eredu-osagaien datza. Edozelan ere, Beasain-Zumarragako (Goierri) LPParen berrikuspenean berraztertu egin beharko da proposaturako bizitegi-kuantifikazioa.

3.4.- Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren arloko gidalerroak

3.4.1.- LPPko lurralde-eredua eta kuantifikazioa

Jarduera ekonomikoetarako esparru berriak garatu behar izateari dagokionez, LPPak honako kategoria hauek ezartzen ditu: lehentasunezko intereseko udalerrria; hazkunde ertaineko udalerrriak; eta garapen baxuko udalerrriak.

Lehentasunezko intereseko udalerritzat hartzen dira Zaldibia, Beasain, Lazkao, Olaberria, Idiazabal, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi. Oro har, jada kalifikatuta dagoen lurzoria jarduera ekonomikoetarako eta eraldaketa- eta berroneratze-eragiketarako mantentzea proposatzen da. Beasain-Zumarraga korridorean bakarrik planteatzen dira garapen berriak.

Hazkunde ertaineko udalerritzat kategorizatzen dira Legorreta, Itsasondo, Arama, Segura eta Zegama. Horietan, lehendik dauden jarduera ekonomikoetarako lurzoruak eta jada kalifikatutako lurzoruak finkatzea eta hobetzea proposatzen da.

Azkenik, garapen baxuko udalerritzat hartzen dira Alzaga, Gaintza, Ataun, Zerain eta Mutiloa. Horietan, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kalifikazioa hiri-lurzoruetara murriztea proposatzen da.

3.4.2.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea. LPPko zehaztapenen gauzatze-maila. UDALPLANarekin alderatzea

Hurrengo taulan LPPan egiten den jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren kuantifikazioa eta 2019ko Udalplaneko datuak ageri dira:

	LPP (2009)			Udalplan, 2019		
	Kalifikatua	Okupatua	Librea	Kalifikatua	Okupatua	Librea
Oria Garaia	340	260	80	418,68	291,84	129,84
Urola Garaia	200	110	90	134,34	82,36	51,98
Guztira	540	370	170	553,02	374,20	181,82

Edozelan ere, eremu funtzionaleko udalerrri guztiek 3 ha-raino aurreikusi ahal izango dituzte jarduera ekonomikoetarako.

Ikus daitekeenez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren kuantifikazioaren zifra globalak LPPak egiten duen aurreikuspenaren antzekoak dira.

3.4.3.- Udal-plangintza LPPko lurralde-eredura egokitzea

Arama (2016/10/18), Olaberria (2015/05/19), Ormaiztegi (2011/08/02), Urretxu (2012/06/26) eta Zaldibia (2018/12/11) udalerrietako HAPOak aztertu ostean, ikus daiteke, oro har, udal-plangintza LPPan proposatzen den lurralde-eredura egokitu dela eta jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruak bertan adierazten diren irizpideei jarraitzen dietela.

3.4.4.- LAG. Industria-kuantifikazioa.

LAGek, araudiaren 12.6. artikuluan, espazioa antolatzeke eta erabiltzeko gidalerro lotesleen barruan, honako hau adierazten dute:

12.6. artikulua.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-pakete handien dimentsionamenduaren azken erantzuleak izango dira Lurralde Plan Partzialak.

Beraz, LAGek LPParen esku uzten dute industria-kuantifikazioa egiteko zeregina; zeregin hori, edozelan ere, LAGetan adierazten diren helburuekin gauzatuko da eta horietan lehena nabarmentzen da: *Lehendik dagoen lurzoru industrialari balioa ematea, hutsik dauden industria-pabiloiak birgaitu eta berrerabiltzea, eta lankidetzaren publiko-pribatuko estrategiak diseinatzea lurzoru industrialen urbanizazioaren kontserbazioa sustatzearen.*

3.5.- LAG. Hiri-berroneratzea.

LAGen memorian honako hau adierazten da: *Eraikin-parkea pixkanaka zahartu egin da, eta eraikuntzak nahiz hiri-ingurunea egokitu egin behar dira gaur egun sortzen diren ingurumen-arloko eta jasangarritasuneko erronka berrietara; hortaz, hiri-berroneratzeko edo -berrikuntzako eragiketak egin behar diren jardun-eremuetan eskala aldatzea proposatu da. Hartara, jardun-unitate oso mugatu batean tokiko esku-hartze bat egin nahi bada, zenbait kasutan, auzo osoa edo hirigune zabalak eta aldirietako ingurunea hartu behar dira eraginpean.*

Ildo horretan, LAGek, araudiaren 10.1. artikuluan, espazioa antolatzeke eta erabiltzeko gidalerro lotesleen barruan, honako hau zehazten dute:

10.1. artikulua.- Lurralde Plan Partzialetan berroneratzeko espazioak zehaztuko dira, erabat degradatu daitezen saihesteko, edo erabat edo zati batean beste erabilera baterako berreskuratzeko. Halaber, ondorio horietarako garatu beharreko programak eta horiek gauzatu ahal izateko babes-neurriak definituko dira. Edozein kasutan, Udalak izango dira, beren planen bidez, eremu horiek zedarrituko dituztenak.

3.6.- LAG. Hiri Hazkundeko Perimetroa.

Hiri-hedapeneko prozesuei muga fisiko maximo bat ezartze aldera, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasuneko irizpideekin bateragarria eta dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak birdentsifikatzeari eta berritzeari lehentasuna emango diona, LAGek hiri-hazkundearen perimetroa kontzeptua definitu dute. Perimetro hori mugatzeko, 11. artikuluan, «Hiri-hazkundeko perimetroari loturiko gidalerroak» deritzonean, honako zehaztapen hauek ezartzen dira, besteak beste:

11.1. artikulua.- Lurralde-plangintza partzialerako gidalerroak.

- a) Lurralde Plan Partzialetan hiri-hazkundeko perimetro bat proposatzea, udal-planek egokitu ahaliko dutena eta udalerrri guztien bizitegitarako eta jarduera ekonomikorako eskariak kontuan hartuko dituen.*
- b) Hiri-hazkundeko perimetroa proposatzean, indarreko Lurralde Plan Partzialetan definitzen diren Bizitegitarako Garapen Berrietarako edo Jarduera Ekonomikoetarako Eremu Lehenetsiak egokitzea.*
- c) Hiri Hazkundeko Perimetroa proposatzea egungo hiri-orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta. Horren harira:

 - 1. Hiri Hazkundeko Perimetroa definitzeko ahalbidetuko du hiria lehendik dauden kokagune bakartuekin integratzea. Lehendik dauden edo aurreikusita dauden garraio kolektiboko sistemekin bat datozen hazkunde-prozesuak bideratzeko aukera ere emango du.*
 - 2. Eraldaketa Ardatzetan barne hartutako udalerrietan, Hiri Hazkundeko Perimetroaren mugatzea aipaturiko ardatz horiek eratzera eta finkatzera bideratuko da, guneen arteko lurralde-hutsuneak babestuz eta zeharkako konexio ekologikoak indartuz.*
 - 3. Hiri Hazkundeko Perimetroaren kanpoko aldirietako ingurunean ez dago bilduta eremuaren hirigintza-okupazioa beharrezkoa denik LPParen barruan. Lurzoru urbanizagarriko esparruak izanez gero, hirigintza-plangintza berrikuspenean erabakiko da esparruari landa-kalifikazioa ematea edo bere adskripzioa atxikiko duela justifikatzea hirigintza-hedapeneko zona berriei dagokienez.**
- d) Hiri Hazkundeko Perimetroan ezingo dira sartu Lurralde Antolamenduaren Gidalerro hauetako Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera hirigintza-aldaketa debekatuta duten lursailak.*
- e) Hiri Hazkundearen Perimetroa hiri-ehunaren inguruan finkatzea.*

4.- PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

4.1.- Paisaia.

4.1.1.- LPPak proposatutako eredia

LPPko araudiaren 7. artikulua antolamenduaren helburu nagusietako bat honako hau dela zehazten du:

- a). Eskualdeko baliabide naturalak eta beren paisaia- eta ingurumen-kalitatea babestea, hobetzea eta balioestea, eskualdearen etorkizuneko garapen jasangarrirako oinarritzko aktiboak direla ulertuta.*

Helburu horrekin, beren paisaia-balioengatik garrantzi berezia duten esparruak egungo egoeraren arabera Babestu, Hobetu edo Berreskuratu beharreko eremutat kategorizatzen dira, eta ekintza positiboko neurriak zehazten dira, hala nola Paisaia Balio Handiko Tokiak Babesteko Plana edo Paisaia Leheneratzeko Plana garatzea.

Gainera, LPPak zenbait zehaztapen jasotzen ditu paisaia era transbertsalean babesteko; adibidez, degradazioa eragin dezaketen erabilerak ezartzeko orduan aintzat hartu beharreko irizpidetzat adieraztea.

4.1.2.- LAG eta LPP

Paisaiak erreferentzia izan behar du lurraldearen antolamenduan, eta modu integralean hartu behar da kontuan, paisaia bikainak eta egunerokoak aintzat hartuz, hauskorrenak babesteko eta degradatuak lehengoratzeko neurrien bitartez.

Horregatik, paisaia-arloan, honako hau da LAGen helburuetako lehena:

1.- Lurralde- eta hirigintza-plangintzako bitartekoak landu eta garatzeko prozesuetan paisaia txertatzea.

Helburu horrekin, 21. artikuluan, «Paisaia-arloko gidalerroak» deritzonean, honako hau adierazten da:

21.10. artikulua.- Lurralde Plan Partzialetan beren Eremu Funtzionalari eta eragin-eremuari dagozkien paisaia-zehaztapenak bildu beharko dira, paisaia kudeatu, babestu eta antolatzeko dagozkion tresnen (Paisaiaren katalogoak adibidez) ondorio direnak.

Beraz, LPPak paisaia zaindu eta berreskuratu beharreko balioztat aitortzen duen arren, paisaiaren azterketa xehatu baten ondoriozko zehaztapen batzuk jaso beharko lituzke berariaz.

4.2.- Kultura-ondarea

4.2.1.- LPPak proposatutako eredia

Ingurune fisikoa antolatzeko helburu nagusien artean, LPPak, araudiko 13. artikuluan, honako hauek proposatzen ditu:

h.- Multzto paisajistiko baliotsuak eta kultura-ondarea babestea.

j.- Aisialdia eta turismoa modu antolatuan baliatzen laguntzea, ekipamendu ludiko eta kulturalak baliatuta natura- eta kultura-ondarean oinarrituta lurraldearen erabilera sustatzeko.

Kultura-ondarea babesteko erregimenari dagokionez, LPPak Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 Legeari jarraitzen dio, eta baita 1997ko LAGetako 17. kapituluari eta dagokion plangintza sektorialari ere. Gainera, ekintza positiboko neurriak proposatzen ditu *Ondarea Zaindu eta Integrazteko Planaren* bidez. Plan horretan sartzen dira ekosistema bereziak, basa-bizitza eta dibertsitate biologikoa, funtsezko ziklo ekologikoak eta kultura-ondarea zaintzeko eta berreskuratzeko edo leheneratzeko jarduera guztiak, Planaren lurralde-esparruan. Hori plan berezieren bidez garatu ahal izango da, hala nola Ondare Zientifiko-kulturalaren Planaren eta Naturaren Elementu Bereziak Babesteko Planaren bidez.

4.2.2.- LAG eta LPP

Kultura-ondareari dagokionez, nabarmentzekoa da, 2019. urtean, LAGak onartzeaz gainera, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea ere onartu zela. Lege horretan, ondasun kultural, higiezin, higigarri eta materialen tipologiak definitzen dira. Ildo horretan bertan, LAGek, kultura-ondarearen arloko gidalerroen artean, honako hau adierazten dute:

22.1. artikulua.- Lurralde Plan Partzialetan euskal kultura-ondarea bere osotasunean bildu behar da, tipologiaren arabera egituratuta: kultura-ondare materiala (higiezina eta higigarria) eta kultura-ondare immateriala.

LPPa legera egokitu behar da eta dagokion lurraldeko kultura-ondarea adierazitako tipologiaren arabera egituratu behar da.

4.3.- Natura-ondarea.

4.3.1.- LPPak proposatutako eredia

Natura-ondarea LPPak ingurune fisikoa antolatzeko erabiltzen duen oinarrietako bat da. Horretarako, ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra egin aurretik, garrantzi handieneko eremuak identifikatzen ditu, horiek babestu, hobetu edo leheneratzeko. Balio eta interes handiagoko esparruak dira, bai naturaren nahiz bai paisaiaren aldetik, eta baita zientziaren, kulturaren, nekazaritzaren edo ingurumenaren aldetik ere. Eremu horiek honela kategorizatzen dira: babestu beharreko eremuak, hobetu beharreko eremuak edo leheneratu beharrekoak, eta baita korridore ekologikoen sare gisa ere (diseinatzeko).

LPPak identifikatzen dituen espazioen antolamendu eta araudia tresna espezifikoaren arabera gauzatzen du, hala nola Baliabide Naturalak Antolatzeko Planaren arabera, Naturagune Babestuen kasuan, edota Ibai eta Errekei eta Hezeguneei buruzko LPSaren arabera, interes hidrogikoa duten eremuen kasuan, eta dokumentu sektorialen edo garapen-dokumentuen arabera, korridore ekologikoen kasuan. Azken kasu horretan, arautzeaz gainera, aipaturiko dokumentuen arabera definitzen eta mugatzen dira.

4.3.2.- LAG eta LPP

Natura-ondarea, LAGen memorian aitortzen den moduan, osagai biotikoen (biodibertsitatea) eta abiotikoen (geodibertsitatea) osatzen dute. Bi osagaiak egun lurraldean dauden habitat eta espezieen osaera sortzen dute. Bestetik, natura-ondareak zenbait ingurumen-ondasun eta -zerbitzu sortzen ditu gizakiontzat, gure ongizatea hobetzeko aukera emanez.

Hori aintzat hartuta, natura-ondareari buruzko LAGetako lehen helburua honako hau da:

1.- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan natura-ondarea modu integralean sartzea, ekosistemen eta horien osagai guztien babesa sustatuz.

LPPak natura-ondarearekin egiten duen trataera bat dator LAGek arlo horretan adierazten dituzten gidalerroekin.

4.4.- Turismo-baliabideak

4.4.1.- LPPak proposatutako eredia

Ingurune fisikoa antolatzeko helburu nagusien artean, LPPak honako hau adierazten du:

j.- Aisialdia eta turismoa modu antolatuan baliatzen laguntzea, ekipamendu ludiko eta kulturalak baliatuta, natura- eta kultura-ondarean oinarrituta lurraldearen erabilera sustatzeko.

4.4.2.- LAG eta LPP

LAGetan, Turismo Jasangarriaren Mundu Gutunak dioen moduan, turismoa lehen mailako jarduera ekonomikotzat jasotzen da, eta eraginkortasunez, desparekotasuna murrizten eta gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzen lagundu behar du. Gainera, turismoaren garapenak egungo baliabideak babestu beharko ditu etorkizuneko belaunaldientzat, eta gure ondarea zaindu eta osotasuna ziurtatu. Helburu horrekin, baliabide turistikoaren arloko gidalerroek, besteak beste, honako hauek adierazten dituzte:

24.3. artikulua.- Lurralde plan partzialari dagokionez:

- a) *Lurralde-plangintza partzialaren Lurralde Ereduan, Eremu Funtzional bakoitzean dauden baliabide turistikoaren antolamendua integratzea.*
- b) *Lurralde Plan Partzialatik Baliabide Turistikoaren LPSan bildutako aurreikuspenak ongi txertatzeko lana koordinatzea, baliabide naturalen eta ingurumenaren babesarekin eta antolamenduarekin eta lurraldearen erabilera iraunkorarekin bateragarri direla bermatzeko moduan.*

Turismoa baliabide gisa tratatzea ez dago jasota LPPan; beraz, horren berrikuspena egiten denean, LAGetan adierazten den antolamendua gauzatu beharko litzateke.



5.- BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA

Goierriko eremu funtzionaleko LPPak bere lurralde-eremuaren barnean hartzen ditu lurralde-administrazioaren sailen planak eta proiektuak; zehazki, hornidurari, saneamenduari, hondakin solidoen tratamenduari, uholdeen prebentzioari eta energia- eta telekomunikazio-azpiegiturei dagozkienak.

5.1.- Ura

5.1.1.- LPPak proposatutako eredia

Ingurune fisikoa antolatzeko helburu nagusien artean, LPPak honako hau definitzen du, besteak beste:

- e.- Drainatze naturaleko sarea babestea uren eta ibaiertzetako ekosistemen kalitatea mantenduz edo hobetuz, ekosistema horietan eragina duten faktoreei arreta emanda (aldaketak, isurketak, eta abar).*
- f.- Lurpeko ur-baliabideen kalitatea mantendu edo hobetzea eta baliabide horiek gehiegi ustiatzea saihestea, hiri-isurketak, nekazaritza eta abeltzaintzako isurketak eta baso-ustiaketatik etorritakoak kontrolatuz.*

LPPak, azaleko urak babesteko kategorian, eremu funtzionaleko ibilguak, horien babes-zerrendak (LPSak adierazi bezala) eta Hezeguneen LPSan adierazitako esparruak jasotzen ditu. Bestalde, baldintzatzaile gainjarritzat hartzen dira uholde-arriskuguneak eta akuiferoen urrakortasun-eremuak. Lehen aipatu diren eremu guztiak interes hidrologikoko eremutzat jotzen dira, babestu beharreko eremu garrantzitsuenen barruan, eta, horietarako, adierazitako plangintza sektoriala zuzenean aplikatzeaz gainera, erabilera-araudi murriztaile bat definitzen da babes-neurri gehigarri gisa.

5.1.2.- Uholde-arriskuaren kudeaketa. LPS, Ibaiak eta Errekak.

Uholde-arriskuaren kudeaketari dagokionez, arazo esanguratsuak dituzten eta uholdeei aurrea hartzeko lan hidraulikoak egitea aurreikusten den esparruak jasotzen dira.

Uholde-arriskuguneen eta ibilgu-bazterren antolamendua EAEko Ibai eta Erreken LPSaren arabera da.

5.1.3.- Hornikuntza eta saneamendua.

Bestalde, funtsezko azpiegitura-sistemako ekintza eta elementu nabarmenen artean, edo lurraldean eragin handiena dutenen artean, honako hauek adierazten ditu LPPak:

- a.- Saneamendua:*
 - . Hondakin-uren araztegia, ibaian behera, Urretxun, jada egina.*
 - . Hondakin-uren araztegia, Legorretan, jada egina.*
- b.- Ur-hornidura:*
 - . Barrendiola urtegia (Urola Garaia).*
 - . Arriaran urtegia.*
 - . Lareo urtegia.*
 - . Orotariko bilketak eta konexioak Urola eta Oria arroetan.*

5.2.- Energia

5.2.1.- LPPak proposatutako eredia. Haize-energia. LPS

LPPak, araudiko 56. artikuluan, garapen berrien antolamendu eta diseinurako orientazio eta gidalerro espezifikoaren artean, honako hauek adierazten ditu:

- 8.- Baliabide-kontsumoari eta hondakinen kudeaketari dagokionez:*
 - Eraikinen efizientzia energetikoa sustatuko da, baita energia berriztagarrien aprobetxamendu-sistemak erabiltzea ere.*

5.2.2.- LAG, Energia

LAGetan efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarrien garrantzia azpimarratzen da, lurralde-jasangarritasunerako, lehiakortasunerako eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako ezinbesteko

baldintzak izateagatik. Alderdi horiek guztiak bermatzeko, LAGak honako zeregin hauek zehazten dizkio LPPari:

16.1. artikulua.- *Lurralde-plangintza partzialak honako zeregin hauek bete behar ditu:*

- b) *Erabilera-eskema orokor bat ezartzea, nahitaezko mugikortasunaren ondoriozko lekualdaketak murrizteko.*
- c) *Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko behar diren azpiegiturak ezartzeko lur-erreserba egokiak biltzea, energia-alorrean ezarritako helburuak betetzeko behar adinako kopuruan eta ahalmen nahikoarekin.*
- d) *Energia Elektrikoa Garraiatzeko Sarearen plangintza kontuan hartzea, sare horretan bildutako instalazioak kokatzeko behar diren lurzoru-erreserbak eginez.*
- e) *Garapen-ardatz linealak indartzea, garraio publikoko zerbitzuak erabiltzea bultzatzeko eta polizentrismoan oinarritutako hiri-egitura eraginkor eta trinkotuak sustatzeko, hartara lekualdatze-premiak murrizteko.*
- f) *Energia-jasangarritasuna ebaluatzeko azterketa egin dadin bultzatzea, plangintza horrek energia-kontsumoaren eta energia-aurreztearen eta -efizientziaren gainean nola eragiten duen aztertzeo, eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.*

5.3.- Ekonomia zirkularra.

5.3.1.- Hondakinen kudeaketa

- LPPak hondakinen kudeaketarako proposatutako eredua

Funtsezko azpiegitura-sistemako ekintza eta elementu nabarmenen artean, edo lurraldean eragin handiena dutenen artean, honako hauek adierazten ditu LPPak:

d.- Hondakin solidoak:

- . *Sasietako Mankomunitateko hondakindegia.*
- . *Mutiloako gai geldoen hondakindegia.*

Garapen berrien antolamenduari dagokionez, LPPak honako hauek zehazten ditu:

8.- Baliabide-kontsumoari eta hondakinen kudeaketari dagokionez:

Hiri- eta industria-hondakinak birziklatzea eta berrerabiltzea sustatuko da, horretarako, hondakinak botatzeko eta tratatzeko altzari eta instalazio egokiak bermatuz.

- Lehendik dagoen Lurralde Plangintza Sektoriala (Gipuzkoa)

Bestalde, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren LPSak honako azpiegitura hauek antolatzen ditu:

- Sasietako transferentzia-estazioa
- Sasietako hondakindegia
- Sasietako ontziak banantzeko instalazioa

Gainera, Goierriko eremu funtzionalean hiru garbigune daude: Urretxun, Beasainen eta Ordizian.

- LAG. Ekonomia Zirkularra

17.2. artikulua.- Lurralde-plangintza egitean hondakinak gaika biltzeko eta birziklatzerako helburu batzuk zehaztea, helburu horiek kudeatzeko behar diren erreserbak zehaztuz, haien banaketak eremu funtzional osoari zerbitzu bikaina eta orekatua bermatzeko moduan.

5.3.2.- Lurzorua baliabide gisa

- LPPak proposatutako eredua

LPPak ez du lurzorua modu esplizituan baliabidetzat tratatzen, baina, modu inplizituan, ingurune fisikoaren oinarritzat ageri da nonahi. Interes naturala duten esparruak babestearen bitartez, eta esparru degradatuak hobetzeko edo leheneratzeko aurreikusitako ekintzen bitartez zein ingurumena babesteko neurri orokor eta zehatzen bitartez, lurzorua babesten eta hobetzen da zeharka.

- LAG. Lurzorua Baliabide gisa

LAGak urrats bat haratago doaz lurzoruaren aintzatespenean, ez soilik beste elementu batzuen (naturalak zein antropikoak) oinarri gisa, baizik eta berezko baliabide eta balio gisa.

18.2. artikulua.- Lurzoruaren erabilerak planifikatzea «lurzoruaren kalitatearen» faktorea kontuan hartuz, gizakien osasunarentzat eta ekosistemen funtzionamenduarentzat onartezinak diren arriskuen prebentzioa ziurtatzeko, eta kutsatzaileak beste ingurune-konpartimentu batzuetara barreia daitezen saihesteko eta baliabideen erabilera optimizatzeko.

6.- MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

6.1.- Mugikortasun multimodala

6.1.1.- LPPko zehaztapenak.

Garraio- eta komunikazio-sistema antolatzeari dagokionez, LPPko irizpide eta helburuen artean dago intermodalitatean oinarritutako garraio-politika bat garatzea, garraio publikoa lehenesten duena eta garraibide ez-motorizatuak edo ingurumen-inpaktu txikiagoa duten garraibideak sustatzen dituena.

Ildo horretan, LPPak bi autobus-geltoki proposatzen ditu Beasaingo eta Zumarraga-Urretxuko tren-geltokien ondoan, eta aldiriko tren-geltoki berri bat Ordizian.

6.1.2.- LAG eta LPP

LAGen berrikuspenean, garraio- eta komunikazio-azpiegituren eredian sartzen da garraio kolektibo multimodala, eta printzipio nagusietako bat, besteak beste, garraio publiko multimodala sustatzea da, garraibideen konbinazioa optimizatuz, abiadura handiko trenaren zerbitzua erabilgarri dagoen egunean. Hala, mugikortasun multimodalaren arloko Gidalerroen 25. artikuluan, besteak beste, honako hau adierazten da:

5.- Autobus-geltokiak intermodalitate-irizpideei jarraikiz sortzea, aldiriko tren-geltokiekin eta garraio-sarean sartzeko nodo nagusiekin integratuz, aireportu eta abiadura handiko trenen geltokiekin, adibidez, baita bizikleta-mugikortasunarekin ere, bizikletak alokatzeko sistemak barne.

6.2.- Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

6.2.1.- LPPko zehaztapenak.

Oinezkoentzako pasealekuek eta bidegorrien sareak Ingurumen Ibilbideen Sarea osatzen dute, biztanlegune nagusiak lurraldera sartzeko guneekin eta proposatutako aisiarako eremuekin lotzeko sistema integratua, lurraldean dauden natura-, paisaia-, ondare- eta aisia-interesa duten elementuak batzen dituena.

Ibilbide horiek hiru multzotan sailkatzen dira: Tokiko irisgarritasunaren sare nagusiko oinezkoentzako pasealekuak eta bidegorriak; natura-, ondare- eta turismo-interesa duten elementuen arteko ibilbide bigunak; eta oinezkoentzako bestelako ibilbide eta zirkuituak. Lehen multzoan bost lerro definitzen dira: luzeenak eremu funtzionala mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du, Deskargatik hasi eta Urretxu-Zumarraga-Ezkio-Itsaso-Ormaiztegi-Beasain-Ordizia-Itsasondo-Legorreta hiriguneak lotuz, Ikaztegiarekiko mugaraino; beste lerro batek, aurrekoarekiko trebeska, Mirandaola-Brinkola-Legazpi-Zumarraga-Urretxu aisia-eremua eremu funtzionalaren mugarekin lotzen du, Azpeitiantz; hirugarren lerro batek Beasain eta Idiazabal konektatzen ditu; laugarrenak Beasain eta Lazkao lotzen ditu; eta, azkenik, bide bat definitzen da Ordizia eta Zaldibia artean.

6.2.2.- Lurralde Plangintza Sektoriala (EAE, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia).

Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSak honako ibilbide hauek definitzen ditu Goierriko eremu funtzionalaren esparruan:

- Deskargatik hasi eta Urretxu-Zumarraga-Ezkio-Itsaso-Ormaiztegi-Beasain-Ordizia-Itsasondo-Legorretaraino, Ikaztegietarekiko mugaraino.
- Brinkola-Legazpi-Zumarraga-Urretxu eta eremu funtzionalaren muga, Azpeitiarantz
- Beasain-Segura-Zegama, Idiazabalera eta Mutiloara doazen bi adarrekin
- Beasain-Lazkao-Ataun
- Ordizia-Zaldibia

6.2.3.- LAG eta LPP

LAGek oinezkoen eta bizikleten mugikortasunak banako-, -gizarte- eta ingurumen-mailan- ekartzen dituen onuren garrantzia azpimarratzen dute eta, ildo horretan, honako gidalerro hauek ezartzen dituzte:

26.4. artikulua.- Lurralde-plangintza partzialak honako hauek egin behar ditu:

- a) *LPPetan, EAEko Bizikletentzako Ibilbideei eta oinezkoentzako ibilbideei buruzko Plan Zuzentzailea garatzea Eremu Funtzionalaren mailan, guneen arteko konexio-sarea sortuz.*
- b) *Edukiari Donejakue Bidea, Inaziotar Bidea, Itsasoaren Bidea, Ardoaren eta Arrainaren Bidea, Kataluniatik Galiziara doan GR-1 Bidezidor Historikoa, Arabako Artzaintza Naturbidea eta Ebroko Bide Naturala eranstea.*

Ildo horretan, Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPak lehen puntua betetzen du; izan ere, ingurumen-ibilbideen sarearen barruan jasotzen ditu Gipuzkoako bizikleta-bideen LPSko bizikleta-ibilbideak, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako konexio-sare bat sortzen du, bai eremu funtzionaleko guneen artean, bai haien artean eta ingurunekeo naturaguneen artean ere.

Eremu funtzionala zeharkatzen duten Donejakue Bidearen eta Artzaintza Bidearen zatiei dagokienez, LPPak ingurumen-ibilbideen sarearen barruan grafiatzen ditu kategoria desberdinetan, tartearen arabera (ibilbide bigunak eta Beste ibilbide batzuk), baina ez dira halakotzat identifikatzen; hori dela eta, haien adierazgarritasuna galtzen dute eta alderdi hori balioztatu egin beharko da LPParen hurrengo berrikuspenean.

6.3.- Bide-mugikortasuna.

6.3.1.- LPPko zehaztapenak.

LPPak bide-sareko elementuak kategorien arabera sailkatzen ditu: Kanpo Irisgarritasuneko Sare Orokorra; Tokiko Irisgarritasuneko Sare Orokorra; Lurralde Irisgarritasuneko Sare Osagarria; Tokiko Irisgarritasuneko Sare Osagarria; eta Landaguneetara Sartzeko Sarea. Araudiaren 28. artikuluan bide-sarearen gaineko esku-hartzeak aurreko sailkapenaren arabera proposatzen dira, eta, edozelan ere, indarreko plangintza sektorialera doitu behar dira. Proposamen nabarmenenak honako hauek dira: Durango-Bergara-Beasain zeharkako ardatza bitan banatzea edo «autobia motako» trazadura gauzatzea, Beasaindik igarotzean alternatiba bat eskainiz, eta Ezkio-Itsasoko tren-geltoki berriaren parean doan bide-lotune berria. Gainerakoan, ez da bide berririk planteatzen, alegia, proposamenak lehendik dauden bideak hobetzera, indartzera eta sustatzera bideratuta daude, lotune berriren bat eginez.

6.3.2.- Lurralde-plan sektoriala. EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra

Lehen ere adierazi dugun moduan, onartu ziren unean indarrean zegoen plangintza sektorialaren arabekoak dira LPPko proposamenak. 2020ko maiatzaren 19an, 63/2020 Dekretuaren bitartez, EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartu da, 2017 / 2028 aldiari dagokiona. Plan horretan, Lan Nagusizat proposatzen dira Ezkio-Itsasoko tren-geltoki berrirako lotunea eraikitzea, GI-632 errepidean, eta Azkoitia-Zumarraga tartearen trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea, GI-631 errepidean. Gainera, Egokitzapen-lan gisa eta Hiri-saihesbide gisa proposatzen da N-1 errepidean, Etzegaraten, bihurtzeko zuzentzea, Gasteizerako norabidean. Bestalde, Plangintza Orokorrean sarearen arriskua murriztera bideratutako jarduketaren proposamen puntualak jasotzen dira, edota gataska asko eragiten dituzten hiri-zeharbideetako esku-hartzeei loturikoak.

6.3.3.- LAG eta LPP

LAGen arabera, EAEko errepideen planifikazioa amaituta dago hein handi batean, eta, beraz, LPParen proposamenak, lehendik dauden bideak finkatu eta hobetzera bideratutakoak, guztiz indarrean daude oraindik. Edozelan ere, LAGek lurraldea egituratzeko sare berri bat txertatu dute, hots, Azpiegitura Berdea, eta adierazten du azpiegitura berde berri horren eta azpiegitura grisaren arteko elkarguneetan, lehena gailendu behar dela. Beraz, LPParen berrikuspenean, azpiegitura berdearen konektagarritasun ekologikoa aztertu behar da eta lehendik dagoen bide-sarearekin gatazkarik dagoen ikertu behar da, horiei erantzuna emateko.

6.4 Tren-mugikortasuna eta -logistika.

6.4.1.- LPPko zehaztapenak.

LPPak tren-sarearen barruan jasotzen ditu bai lehendik dauden aldiriko sareak (RENFE) bai Trenbide Sarerako LPSak proposatzen duen sare berria.

Aldiriko sarearen kasuan, LPPak honako hauek proposatzen ditu: Irun-Legazpi lineako zerbitzu eta maiztasunak areagotzea; Ordizia eta Beasain arteko trazadura aldatzea; eta eremu funtzionaleko bidaiariek garraiobidea aldatzeko edo antolatzeko zentroak ezartzea geltokietan (edo horietatik gertu) Beasainen eta Zumarragan, gaur egungo trenbideak eraldatu eta berroneratuz.

Trenbide-sare berrirako, LPPak trenbidearen trazaduraren arabera lurzoru-erreserba egitea proposatzen du, Ezkio-Itsason bidaiarientzako geltoki bat eta salgaietarako trukatzaila bat ezartzeko.

6.4.2.- Lurralde Antolamendu Sektoriala (EAEko trenbide-sare berria)

EAEko Trenbide Sarearen LPSak trazadura lotesletzat definitzen du LPPan jasotzen den eta eremu funtzionalaren ekialdetik mendebaldera doan linea, eremu funtzionalaren iparraldean, Ezkio-Itsason adarra duena lehendik dagoen RENFEren sareko linearekiko lotune gisa eta Ebroko linearekiko izan litekeen konexio gisa. Gainera, Ebroko linearekiko konexioa egiteko proposamen ez-lotesle gisa beste bi alternatiba jasotzen dira, bata Ordizia-Itsasondon eta bestea Ikaztegieta-Alegian.

6.4.2.- LAG eta LPP

LAGek EAEko trenbide-sare berriaren trazadura Trenbide Sarearen LPSan adierazi bezala jasotzen dute alderdi lotesleei dagokienez, baina bakarrik Ezkio-Itsasoko alternatiba jasotzen du Ebroko linearekiko litekeen konexio gisa. Azken konexio horretarako, LAGek Burgos-Gasteiz konexioa Altsasutik luzatzeko aukera ere jasotzen dute, baina konexio hori ez dago Trenbide Sareko LPSaren proposamenen artean.

7.- EKIPAMENDUAK

7.1.- LPPko zehaztapenak

LPPak lehendik dauden ekipamenduak eta eremu funtzionalean proposatutakoak honela sailkatzen ditu: hiri-ekipamenduak eta landaguneetako eta natura-inguruneko ekipamenduak. Hiri-esparrurako proposamenak honako hauek dira:

a).- Hezkuntza-ekipamendua:

- Ekoizpen-ekimen berriei loturiko egungo prestakuntza-zentroak eta I+G zentroak handitu, sustatu eta hobetzea.
- Hornidura-izaerako esparru bat erreserbatzea, horri loturiko hirugarren sektoreko erabilerak barne hartuz, Goierri Eskola Profesionalaren ingurunean.

b).- Kirol-ekipamenduak:

- Ekipamendu horiek berrantolatu eta suspertzea, horien artean osagarritasun hobea lortze aldera.

c).- Ekipamendu sanitario eta asistentziala:

-Adindunentzako hornidurak handitzea, plangintza sektorial edo udal-plangintzen arabera kokapena duten zerbitzuen bitartez.

d).- Herritarrentzako edo Administrazio Zerbitzuetarako ekipamendua:

-Eremu funtzionala barne hartuko duen Barruti Judizial berria sortzeko proposamena; horren kokaleku egokiena Beasain-Ordizia-Lazkao erpina deritzon esparrua izango litzateke.

e).- Kultura- eta aisia-ekipamendua:

-Udalerriz gaindiko izaera duen Kultura Zentroa ezartzea, eremu funtzionalaren mailan; horren kokaleku egokiena Beasain-Ordizia-Lazkao erpina deritzon esparrua izango litzateke.

f).-Merkataritza-ekipamendua:

-Urretxu-Zumarraga eta Beasain-Ordiziarako Merkataritza Suspertzeko Planak prestatzea.

g).-Garraio-ekipamenduak:

-Kontzeptu honen barruan sartzen dira bide- eta trenbide-sistemei loturiko ekipamenduak, hala nola garraio zentroak, geltokiak, zerbitzuguneak, plataforma intermodalak, garraio astunetarako disuasio aparkalekuak eta salgaien aldalekuak; horietarako proposamenak antolamendu arau hauen IV. kapituluaren agerian dira.

h).-Aldirietako parkeen zuzkidurak:

-Antio-Beloki eta Argixao-Zugarramurdi (Zumarraga), Santa Barbara (Urretxu) eta Urtatza (Legazpi) parkeak.

i).-Beste zuzkidura batzuk:

-Berrekipamendu-eragiketa bereziak eremu funtzionalean «lurraldera sartzeko gune» gisa kategorizatuta dauden udalerrietan: Zaldibia, Ataun-San Martin, Segura eta Zegama.

Landa-eremuetarako eta natura-ingurunean, honako hauek proposatzen dira:

a).- Aisialdi eta Jolas Eremuak

Horien ezaugarrien arabera, oinarritzko honako tipologia hauek planteatzen dira:

-Eskualderako diren jolas-eremuak. Herrien alboan daudenak eta horietako zerbitzuak osatzen dituztenak:

Oianguko jolas-eremua Lazkaomendin. (Oiangu parkea handitzea)

Brinkola-Telleriarte eremua. (Mirandaola kultura-gunea integratzea)

-Zabalguneak: Paisaiaren aldetik erakargarriak diren puntu berezietan:

Altzagarate-Gaintza, Usurbe, Kiskitza, Zamiño-Izazpi, Irimo, Arrolamendi-Gorostiaga, Otaño-Arranoaitz, Mariñamendi-Aitzleor eta Arantzamendi eremuak eta Exminesa ingurunea; azken hori hondakinen urmaela desagerrarazi, deskontaminatu eta berroneratu ostean.

-Parke Naturalak, Natura 2000 Sarea eta Interes Naturalistikoko Espazioak:

Aralar parkea. Aizkorri-Aratz parke naturala. Murumendi. Gorostiaga. Aralar-Aizkorri korridorea, Lizarrusti eta Otzaurte artean.

b).- Ingurumen-ibilbideen sarea:

Hirigune nagusiak Lurralderako Sarbide Guneekin eta proposatutako Jolas Eremuekin lotzeko ibilbide-sistema integratua da.

-Oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealekuak (bidegorriak), tokiko irisgarritasuneko sare nagusian

-Natura-, ondare- eta turismo-intereseko elementuen arteko ibilbide bigunak.

-Oinezkoentzako beste ibilbide eta zirkuitu batzuk.

c).-Beste ekipamendu batzuk:

Azpiegitura bigunak (aparkalekuak, mahaiak, bankuak, sukaldean egiteko elementuak, ura, sanitarioak eta baita kanpalekuak ere) lurraldeko puntu berezietan: Lizarrusti, Otzaurte, Mandubia, Udana, Etxegarate eta Brinkola.

7.2.- Ekipamenduen garapena

Hezkuntza-, kirol- eta laguntza-ekipamenduen arloko jarduketak lehendik zeuden ekipamenduak hobetzeko eta handitzeko izan dira, eta esku-hartzeak egin dira eremu funtzionaleko zenbait zentrotan.

Jolas-eremuei dagokienez, LPPra moldatutako HAPOek Espazio Libreen Sistema Orokor gisa proposatutako jolas-eremuak eta aldrietako parkeak biltzen dituzte, hala nola Urretxuko Santa Barbara-Ipinarrieta parkea.

Bestalde, udal-plangintza oraindik moldatu gabe dagoen arren, oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealekuak garatu dira, baita ibilbide eta azpiegitura bigunak ere natura-, ondare- eta turismo-intereseko eremuetan.

Ez da garatu Beasain-Ordizia-Lazkao erpineko eragiketa estrategikora loturiko ekipamendurik.

8.- ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK

8.1.- LPPko zehaztapenak. Esku-hartze estrategikoak

Beasain-Zumarragako (Goierrri) LPPan, Ereduko funtsezko zehaztapenak garatzera edo gauzatzera bideratutako Lurralde Egiturako esparru edo elementuen gaineko eskualde-helmeneko esku-hartze proposamenak Esku Hartze Estrategikotzat hartzen dira, eta honako hauek dira:

a). Ingurune fisikoa

1.- Babestu, hobetu edo lehengoratzeko esparrutzat definitutako esparruak mugatzea, gaur egungo Naturagune Babestuak osatzeko, eta bertako jarduerak dagokien kategorizazioaren arabera arautzea.

2.- 25. artikuluan jasotzen diren jarduketa-proposamenetan adierazten diren planak prestatzea, dagozkien programekin eta horiek garatuko dituzten ekintzekin.

b). Zentralitateak sustatzea

1.- Beasain-Ordizia-Lazkao erpina antolatzea, egiturazko integrazio eta integrazio formal egokia lortzeko egungo hiri-aglomerazioko guneen artean. Eragiketa hori trenbidearen trazadura aldatzeari loturik dago, eraldaketa horietarako LPP honetan adierazten diren baldintzetan.

2.- Beasain-Zumarraga korridorea antolatzea, bizitegien, zuzkiduren eta ekonomia-jardueren garapenerako espazio bat sortzeko. Helburu hori lortzeko, zenbait eragiketa integratu egingo dira, azpiegitura-ardatzaren inguruan egituratutako hiri-izaerako espazio bat lortzera orientatuak. Hala eratuko da eremu funtzionala bi burutzen eta Ezkion aurreikusita dagoen geltokiaren artean, zentralitate estrategikoko gune izateko.

c). Sistema erlazionala

1.- Garapen-korridore handiak eta hobekuntza puntualak amaitzea, Tokiko Irisgarritasuneko Sare Nagusiarekiko: N-1 autobidea, jada eginda dagoena, eta Beasain-Durango korridorea, bitan banatutako bide gisa planteatuta. Halaber, honako jarduketa puntual hauek egingo dira:

- N-1eko Ordizia, Lazkao eta Beasainarako sarbideen sistema aldatzea, Ordizia hegoaldeko lotunea hobetzearen bidez.

- Bide-lotune berria Beasain-Zumarraga korridorearen eta GI-632 errepidearen artean, Santa Lutzia-Anduaga gunearen parean edo inguruan, Ezkio-Itsasoko Trenbide Sare Berriko geltokiaren ondoan.

2.- Tokiko Irisgarritasunerako Sare Nagusiko komunikazio-bideak hiri-jarraitutasuneko ardatz bihurtzea.

3.- Trenbide Sare Berria eta geltokia eraikitzea Ezkio-Itsason. Bidaiarientzako geltokia eta salgaietarako trukatzaila ezartzea Ezkio-Itsason.

4.- Renfeko trenbidearen trazadura eta kota aldatzea, Bustuntza auzoaren (Ordizia) eta Beasaingo azokaren artean.

5.- Beasain eta Zumarragako geltokietako salgaietarako trenbideei dagozkien esparruak eraldatzea eta berroneratzea, esparru horietan eta horien inguruan eremu funtzionaleko garraio-antolakuntzarako zentroak kokatzeko, baita tren eta autobusen arteko truke-sistemak eta bestelako jarduerak ere, hala nola merkataritza-espazioak eta zerbitzuak, aparkalekuak eta lortu asmo den hiri kategoriari dagozkion zuzkidurak, eta espazio horiek zentralitate-foku bihurtzea.

d). Lurzoru-politika

1.- Hiriaren eraldaketa- eta berroneratze-eragiketak Beasain-Ordizia-Lazkao erpinean eta San Bartolomen (Ordizia), bizitegitarako, hirugarren sektoreko eta zuzkiduretarako lurzoru-eskaintza handia izango duen esparrua sortzeko.

2.- Lazkao, Ormaiztegi eta Idiazabal udalerrietan adierazitako esparruak mugatzea eta erreserbatzea, Lurzoru Ondare Publiko bat osatzeko.

3.- Beasain-Zumarraga korridorean jarduera ekonomikoetarako eremu berriak garatzea. Hiru esparru planteatzen dira eta horietatik gutxienez batek sustapen publikokoa izan behar du, eta beste batek, aukeran Igartzola ibarbiderean behealdean, Salgaien Garraioari loturiko jarduera eta ekipamenduetara bideratuta egon behar du.

e). Ekipamendu eta Espazio Librean Sistema.

1.- Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren erdigunea birkualifikatzera eta, oro har, burutza sustatzera bideratutako eskualde-mailako funtzio eta zerbitzu berriak onartzea, eta berriz ekipatzeko eragiketak.

2.- Lurraltera sartzeko guneak berriz ekipatzeko eragiketak.

3.- Aisia- eta jolas-eremuak eta Ingurumen Ibilbideen Sare Nagusia, natura-, paisaia- edo kultura-intereseko elementuen artean, lurraldearen aisia-erabilera modu antolatuan sustatzeko estrategia garatzeko beharrezkoak diren lurralde-ekipamenduak baitira.

f). Zerbitzuen Oinarrizko Azpiegitura Sistema. Saneamenduko eta Hondakin Uren Araztegi-tako plan eta proiektu sektorialak gauzatzea, baita Edateko Ura Hornitzeko sistemarena eta Telekomunikazio Sistemarena ere.

8.2.- Proposamenen garapen-maila

Nabarmentzekoa da Beasain-Ordizia-Lazkao erpin deritzon esparrurako adierazten diren zenbait gairi dagozkien Esku Hartze Estrategikoak ez direla garatu eta ez direla onartu horiek garatu ahal izateko beharrezkoak diren bateragarritasun-planak.

a). Ingurune fisikoa

LPPak egiten dituen proposamenak honela bereizi daitezke: lurralde-plangintzan edo plangintza sektorialean mugatzen direnak –udalerriz gaindikoak–, eta udal-plangintzaren bitartez garatuko direnak.

Lehenak (Natura 2000 Sarea, Naturagune Babestuak eta Nekazaritza Intereseko Eremuak) mugatuta daude eta antolamendu- eta babes-figura zehatzak dituzte, hala nola Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak edo Nekazaritza eta Basogintzako LPSa; hortaz, LPPan horietarako zehazten diren helburuak bete dira, nahiz eta Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak berrikusi egin behar diren, lehen ere adierazi den moduan.

Azkenak, hala nola interes naturalistikoko espazioak eta intereseko beste kokapen batzuk, udal-plangintza moldatu den heinean garatu dira; hori dela eta, horien garapen-maila txikia da.

b). Zentralitatea Sustatzea eta sistema erlazionala

Zentralitateak sustatzeko proposatutako bi esku-hartze estrategikoak oso garrantzitsuak dira eremu funtzionala garatzeko, eta oso bilakaera desberdina izan dute:

- Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren antolamendua trenbidearen trazadura aldatzearen mende dago, baita CAF enpresari lotutako jarduera ekonomikoetarako lurzorua desafektatzearen mende ere. Lehen baldintza ez da gauzatu, eta CAFen lurzoruak eraldatzeko apustua kolokan egon daiteke une honetan; hori dela eta, esku-hartze estrategikoa da, eta LPParen berrikuspenak berriz hartu beharko du aintzat hala dagokionean, batez ere planteatzen den integrazio-jarduerarako proposatutako erabilerei dagokienez.
- Abiadura Handiko Trenaren trenbide-sare berria eraikitze-lanetan da eta Ezkio-Itsason trenbide berriaren plataforma handitua egin da, salgaietarako trukatzaila eta bidaiarientzako geltokia sortzeko oinarri izango dena, eta horrek erraztu egingo du esku-hartze estrategikoa erabat garatzea. Gainera, puntu hori planteatzen da AHTren eta Iruñearen arteko balizko konexioa egiteko, eta horrek ere lagundu egingo luke esparru hori zentralitate estrategikoko nodo bihurtzen, LPPak proposatzen duenaren arabera. 2019ko LAGetan beste alternatiba bat ere jasota dago, hots, AHTa Iruñearekin Gasteiztik lotzea, Lautadan zehar. Hurrengo urteetan berretsiko da behin betiko alternatiba, eta horrekin aldatu egin daitezke LPPak esparru horretarako proposatzen dituen zenbait alderdi.

Bestalde, sistema erlazionaleko beste elementu batzuei dagokienez, Beasain-Zumarraga korridorea amaitu da, baina ez da hobetu Ordizia hegoaldeko lotunea edo Beasain-Zumarraga korridorearen eta GI-632 errepidearen arteko bide-lotune berria, Santa Lutzia-Anduaga parean.

Sare nagusiko bideei dagokienez, horietako askotan bidegorria eta zuhaitzak jarri dira; hori dela eta, horien izaera aldatu egin da eta hiri-jarraitutasuneko ardatz bihurtu dira.

Azkenik, lurpeko aparkaleku bat eraiki da Zumarragako tren-geltokiaren parean, baina ez da trenbideetan esku-hartzerik egin eta ez da sortu LPPan proposatutako antolamendu- edo zuzkidura-zentrorik, ez Zumarragan, ez Beasainen.

c). Lurzoru-politika

Lurzoruen Ondare Publikoa sortzeko erreserbak adierazita dituzten hiru udalerrietatik, Ormaiztegin bakarrik berrikusi da udal-plangintza; horregatik, ildo horretan proposatutako esku-hartze estrategikoa partziala izan da. Ez da jarduera ekonomikoetarako garapen berririk egon Beasain-Zumarraga korridorean ere.

9.- ZEHARKAKO GAIAK

Azken urteotan, gai jakin batzuek garrantzi handia hartu dute politika publikoen diseinu eta kudeaketaren alorrean, eta gai horiek ere kontuan hartu behar dira lurraldea antolatzean, eta, beraz, hala jasotzen dira LAGetan. Berez lurraldeari estu lotuta ez badaude ere, lurraldean nolabaiteko eragina duten gai batzuek ari gara. Hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, euskara, irisgarritasun unibertsala eta lurralde arteko erlazioa.

Gai horiek ez ziren Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPan sartu, eta, beraz, aztertu eta baloratu egin beharko dira berrikuspenean, dagozkien erabakiak hartzeko.

II.- ONDORIOAK

A) Ondorio orokorrak

Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ingurunean izandako aldaketak direla eta, 2019ko LAGetan ikuspegi berriak jaso behar izan dira datozen urteetarako lurralde-estrategia prestatzeko, hala nola hiri-berroneratzeari ematen zaion arreta berezia, lurzorua balioan jartzea baliabide mugatu gisa, klima-aldaketa, mugikortasun jasangarria, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemen zerbitzuak, baliabideen kudeaketa jasangarria, genero-ikuspegia, osasuna, irisgarritasuna, euskara, immigrazioa, parte-hartzea eta gobernantza ona, besteak beste. Horiek guztiak gidalerro berriak sortu dituzte, eta LPPek ikuspegi horiek jaso beharko dituzte, idazteko unean aintzat hartu ez ziren alderdi guztietan.

Beasain-Zumarragako (Goierrri) LPPa bat dator 2019ko LAGekin ingurune fisikoaren tratamenduan eta garapen-irizpide orokorretan, baina, bi kasuetan, sakondu egin behar da Azpiegitura Berdearen eta Hiri Hazkunderaren Perimetroaren kontzeptuetan. Gainera, guztiz bat dator hiri-berroneratzearen printzipioekin. Edozelan ere, orain eraldaketa ardatz gisa definitzen denaren gainean hartutako zehaztapenak osatu beharko ditu.

B) Ondorio partikularrak

a) Esku-hartze estrategikoak

- 1- LPPak egiten dituen proposamen gehienek garapen handia izan dute eta behar bezala erantzun diete eremu funtzionalaren beharrei, nahiz eta hirigintza-plangintza moldatu gabe izateak esku-hartze estrategikoetako batzuk ez garatzea ekarri duen.
- 2- Ingurune fisikoa babesteari, ekipamenduei eta espazio libreei dagozkien proposamenek, eta oinarritzko azpiegiturei dagozkienek, oro har, proposatutako helburuak lortu dituzte.
- 3- Ezkio-Itsaso esparruan, AHTren plataforma eta Iruñearekiko konexioa garapen-bidean dago. Gogorarazi behar da 2019ko LAGek Gasteiztiko konexioaren alternatiba ere jasotzen dutela, Lautadan zehar. Datozen urteetan berretsiko da behin betiko alternatiba eta horrek eragina izan dezake Ezkio-Itsasoko aurreikuspenetako batzuetan.
- 4- Beasain-Ordizia-Lazkao erpinaren garapenak ez ditu jarraitu LPParen aurreikuspenak, ez baita gauzatu trenbide-trazadura aurreikusitako aldaketa eta ez delako murriztu eragindako eremuko jarduera ekonomikoa. LPParen berrikuspenean azken esparru horretarako proposamenaren bideragarritasuna berraztertu beharko litzateke, batez ere lurraldea jarduera ekonomikoetarako aprobetxatzeari dagokionez, planteatzen den integrazio-ariketarako.

b) Ingurune fisikoa

- 1- 2019ko LAGetako planteamendu orokor berriek urrats gehiago egiten dituzte lurralde-antolamenduaren jasangarritasunean. Horiek moldatzeko beharra adierazten dute, baina ez dute zalantzan jartzen indarreko LPPan jada zehaztuta dagoena. Ingurune fisikoaren antolamenduari eta babesari dagokionez, klima-aldaketara moldatu behar izateak erantzun egokia eskatzen du.
- 2- Hobekuntza-elementu gisa, LPPak azpiegitura berdeen kontzeptua jaso beharko du eta hori eremu funtzionalaren mailan osatuko duten korridore ekologikoak definitu beharko ditu, jada babestutako naturaguneen arteko konektagarritasun ekologikoa bermatuz, LAGetako 4.6. artikuluko zehaztapenekin bat.
- 3- Baldintzatzaile gainjarriak osatu egin beharko dira LAGetan definitzen direnekin (Azpiegitura Berdea, Klima Aldaketari loturikoak), eta Nekazaritza eta Basozaintzako zein KBEetako LPSak definitutako balio estrategiko handiko lurzoruen mugatzea jaso beharko da. Azken eremu horiei dagokionez, nabarmentzekoa da horien gainean babes-figura bat baino gehiago gainjarritz gero, Aralarren eta Aizkorri-Aratzen indarrean dauden Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak berrikusi beharko liratekeela.

c) Landa-habitata

- 1- Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPa bat dator erabat LAGekin, landa-habitatari emandako tratamenduari dagokionez; hain zuzen ere, landa-habitatari behar duen konektagarritasuna eman nahi zaio, hori babesteko eta biztanleria mantentzeko.
- 2- «Landagune» izendapena Foru Aldundiak inbentariatutako guneez mugatu beharko litzateke edo, halakorik ez, 2/2006 Legearen 29. artikuluan adierazitakoa betetzen duten guneez.

d) Hiri Habitata

- 1- Hiri-habitatari dagokionez, LPPko zehaztapenek behar bezala erantzuten diete Gidalerro berriei, bai definitutako eraldaketa-ardatzen tratamenduaren ikuspegitik, bai jada okupatutako lurzoruen optimizazioaren ikuspegitik. Zehazki, LPPak hiri-berroneratzea esku-hartzeko modu esanguratsu gisa planteatzen du.
- 2- LAGek bizitegi-kuantifikaziorako irizpide berriak jasotzen dituzte eta gidalerro berriak zehazten dituzte hiri-habitaterako, hala nola LPPei eskatzea Hiri Hazkunderako Perimetroa definitzeko; horregatik, berrikuspina egiteko unean, LPPak bizitegi-kuantifikazioa irizpide berrietara doitu beharko du, kuantifikazio hori murriztuz.
- 3- LAGek Goierriko eremu funtzionalerako definitutako Eraldaketa Ardatza dagoeneko LPPan islatuta badago ere, egokitzapen batzuk egin beharko dira; esate baterako, horrela definitutako eremuaren doikuntza eta ekobulebarraren kontzeptua erabiltzea bideen diseinuan.

e) Paisaia, Kultura eta Natura Ondarea, eta Baliabide Turistikoak

- 1- Beasain-Zumarragako (Goierri) LPPak Natura Ondarearen inguruan egiten dituen antolamendu eta zehaztapenak elementu positiboa izan dira, eta dira, eremu funtzionalaren garapen jasangarrirako; horiei esker, ekosistemak babestu ahal izan dira eta, ondorioz, horiek natura-zein giza jarduera behar bezala garatzeko eskaintzen dituzten zerbitzuak mantendu ahal izan dira.
- 2- Kultura Ondareari dagokionez, idazteko unean egindako tratamendua egokia izan arren, 6/2019 Legea onartzeak LPPa horretara egokitzera behartzen du.
- 3- Paisaiari eta baliabide turistikoiei dagokienez, lurralde-antolamenduko kontzeptu gisa izaera berritzailea duten arloak dira; hori dela eta, LPPak horiei ematen dien erantzuna berrikusi egin beharko da.
- 4- Paisaiatz dihardugula, paisaiari buruzko 90/2014 Dekretuak paisaia integratzeko eta lurralde-antolamenduaren dimentsio espezifiko gisa garatzeko tresnak ezartzen ditu, 2000. urteko Paisaiaren Europako Hitzarmenak aldarrikatzen duenarekin bat. Hortaz, LPPak paisaiaren babesa puntualki tratatu duen arren, arloaren analisia egin beharko luke, Paisaiaren Katalogoak prestatuz eta hortik ondorioztatzen diren zehaztapenak jasoz.

f) Baliabideen kudeaketa jasangarria

- 1- LPPak eremu funtzionalean eskuragarri dauden baliabideen kudeaketari buruz egiten duen planteamenduak administrazio sektorial bakoitzak aurreikusitako azpiegiturak eta planak jasotzen ditu, eta horrek kudeaketa egokia eskaintzen du, nahiz eta LAGen proposamen berrien ildo nagusiak adierazi baliabideen kudeaketa integratu, jasangarri eta zirkularra beharrezkoa dela; horrek planteamendu-ildo berri bat izan beharko luke LPParen etorkizuneko berrikuspenean.

g) Mugikortasuna eta logistika

- 1- LPPak mugikortasunaren eta logistikaren arloan egiten duen antolamenduak, oro har, LAGen zehaztapenekin eta indarrean dauden plan sektorialekin bat datozen zehaztapenak ditu; hori dela eta, esan daiteke LPPa egoki aplikatu dela arlo horretan.



- 2- Hobetzeko elementu gisa, azpiegitura grisaren eta azpiegitura berdearen arteko balizko gatazka-puntuak berrikusi behar dira, eremu funtzionaleko naturaguneen konektagarritasun ekologikoa bermatze aldera.
- 3- Azkenik, uste dugu LPPak Donejakue Bidea eta Artzaintza Bidea bereizi eta identifikatu behar dituela, hala izendatuz, bi bideek mugikortasunaren eta kulturaren aldetik duten garrantzia kontuan hartuta.

h) Zeharkako Gaiak

- 1- Zeharkako gaiak (irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde arteko erlazioa) kontuan hartu beharko dira lurralde-plangintzaren berrikuspenean, hobetzeko.

Elektronikoki honako hauek sinatua:

Firmado electrónicamente por:

**LURRALDE ANTOLAMENDUKO
ARKITEKTOA**
ARQUITECTA DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO

Leire URCOLA ALBERDI

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ETA
PLANGINTZARAKO ZERBITZUAREN
ARDURADUNA**
EL RESPONSABLE DEL SERVICIO DE
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y
PLANEAMIENTO



Jesús M^º ERQUICIA OLACIREGUI

OE/ V^ºB^º
**LURRALDE PLANGINTZA, HIRIGINTZA ETA
HIRI BERRONERATZE ZUZENDARIA**
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, URBANISMO Y
REGENERACIÓN URBANA

Ignacio DE LA PUERTA RUEDA

I. Eranskina.- LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-JASANGARRITASUNEN ADIERAZLEAK.

A.0.- Bilakaera demografikoa



Eboluzio demografikoari buruzko gogoetak


XX. mendearen erdialdean, Goierriko eremu funtzionaleko biztanleriak asko egin zuen gora, garai hartan gertatu zen industrializazioaren eskutik. 1970eko hamarkadatik aurrera, biztanleak galdu zituen; galera hori egonkortu egin zen mende-aldaketarekin, eta biztanle kopuruak gora egin zuen 2010. urte inguruan. Harrezkero, biztanleria mantendu egiten da, goranzko joera arin batekin.

A.1.- Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa.

A.1.a).- Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa.

1. LURRALDE EREDUA - MODELO TERRITORIAL																	
UDALPLAN 2019	1(a) Egoitza Residencial			1(b) Jardura Ekonomikoak Actividades Económicas			1(c) Sistema Orokorrak Sistemas Generales			1 (Lurralde Eredua - Modelo Territorial) Kalifikatua guztira Total calificado			1(d) Lurzoru Urbanizaezina Suelo no Urbanizable			1 (Lurralde Eredua - Modelo Territorial) Guztira Total	
	ha	%		ha	%		ha	%		ha	%		ha	%		ha	
ESPARRUA	18.880	2,61	1,91	13.824	1,91	16.382	2,26	49.086	6,78	674.457	93,22	723.543					
ÁMBITO TERRITORIAL																	
E.A.E./CAPV																	
LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTÓRICOS																	
ARABA/ÁLAVA	5.622	1,85	1,56	4.736	1,56	5.424	1,78	15.782	5,19	288.405	94,81	304.187					
BIZKAIA	8.109	3,66	2,36	5.223	2,36	6.849	3,09	20.181	9,11	201.338	90,89	221.519					
GIPIZKOA	5.148	2,60	1,95	3.866	1,95	4.108	2,08	13.122	6,63	184.715	93,37	197.837					
EREMU FUNTZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES																	
Goierrri	522	1,21	1,29	555	1,29	516	1,20	1.593	3,70	41.458	96,30	43.051					
UDALERRIAK / MUNICIPIOS																	
ARAMA	3	2,56	7	5,04	4	3,15	15	10,76	121	89,24	136						
ATAUN	23	0,39	3	0,06	15	0,26	41	0,71	5,796	99,29	5,837						
BEASAIN	67	2,24	91	3,04	92	3,07	250	8,35	2.744	91,65	2.994						
ZEGAMA	21	0,62	8	0,22	14	0,40	43	1,23	3.440	98,77	3.483						
ZERAIN	5	0,54	2	0,21	6	0,55	13	1,30	1.004	98,70	1.017						
EZKIO/ITSASO	15	0,70	36	1,69	21	0,97	71	3,36	2.051	96,64	2.122						
GAINZA	1	0,20	0	0,00	3	0,48	4	0,68	586	99,32	590						
GABIRIA	12	0,81	8	0,55	17	1,12	37	2,49	1.446	97,51	1.483						
IDIAZABAL	14	0,49	46	1,58	39	1,35	100	3,42	2.830	96,58	2.930						
ITSASONDO	8	0,91	7	0,79	7	0,80	22	2,50	872	97,50	894						
LAZKAO	42	3,65	53	4,54	16	1,36	111	9,55	1.048	90,45	1.159						
LEGAZPI	82	1,96	59	1,41	41	0,98	183	4,35	4.029	95,65	4.212						
LEGORRETA	14	1,62	17	1,92	25	2,93	56	6,47	804	93,53	860						
MUTILOA	3	0,38	0	0,00	27	3,09	30	3,47	832	96,53	862						
OLABERRIA	16	2,24	54	7,67	29	4,11	98	14,02	600	85,98	698						
ORMAIZTEGI	12	1,79	37	5,36	18	2,63	67	9,78	618	90,22	685						
SEGURA	16	1,70	5	0,53	12	1,25	33	3,48	902	96,52	935						
ORDIZIA	74	13,07	36	6,41	26	4,57	82	24,05	431	75,95	568						
URRETXU	30	4,00	24	3,15	28	3,74	82	10,90	671	89,10	753						
ZALDIBIA	10	0,57	10	0,58	13	0,76	32	1,91	1.633	98,09	1.665						
ZUMARRAGA	48	2,57	53	2,87	55	2,96	155	8,41	1.894	91,59	1.849						
PARTIZUERGO NAGUSIA / PARZONERIA GENERA	0	0,00	0	0,00	2	0,07	2	0,07	3.199	99,93	3.201						
GIPIZKOAKO PARTIZUERGO TXIKIA	0	0,00	0	0,00	5	1,07	5	1,07	474	98,93	479						
ENIRIO-ARALAR	0	0,00	0	0,00	0	0,00	0	0,00	3.393	100,00	3.393						
ALTZAGA	4	1,55	0	0,00	2	0,82	6	2,37	240	97,63	246						

A.1.a).- Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa.



Lurralde-ereduari / lurzoruaren kalifikazioari buruzko gogoetak.

Goierriko eremu funtzionalean kalifikatutako lurzoruaren proportzioa (% 3,70) Gipuzkoako batez bestekoa (% 6,63) eta EAeko batez bestekoa (% 6,78) baino askoz txikiagoa da. Lurzoru urbanizaezinen kategorizazioari dagokionez, baso-lurzoruen proportzio altua nabarmentzen da (% 43,51), Gipuzkoako (% 32,51) eta EAeko (% 29,88) batezbestekoen oso gaitetik. Aurreko datuak mendi-orografia oso bereizgarria eta haran estuak dituen lurralde baten oso adierazgarriak dira.

A.1.b)- Lurralde-eredua. Landa-lurzorua - urbanizaezina


UDALPLAN 2019	1(d) 1		1(d) 2		1(d) 3		1(d) 4		1(d) 5		1(d) 6		1(d) 7		1(d)	
	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%
ESPARRUA	6.675	0,92	163.432	22,59	18.132	2,51	216.221	29,88	7.440	1,03	222.098	30,70	40.460	5,59	674.457	93,22
ÁMBITO TERRITORIAL																
E.A.E./CAPV																
LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTORICOS																
ARABA/ÁLAVA	1.088	0,36	72.743	23,91	5.426	1,78	91.094	29,95	5.032	1,65	92.328	30,35	20.694	6,80	288.405	94,81
BIZKAIA	2.514	1,13	42.640	19,25	5.510	2,49	60.807	27,45	520	0,23	76.869	34,70	12.478	5,63	201.338	90,89
GIPUZKOA	3.073	1,55	48.049	24,29	7.196	3,64	64.320	32,51	1.888	0,95	52.901	26,74	7.289	3,68	184.715	93,37
EREMU FUNZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES																
Goierrri	171	0,40	9.392	21,81	1.685	3,91	18.733	43,51	140	0,33	9.934	23,07	1.403	3,26	41.464	96,31
UDALERRIAK / MUNICIPIOS																
ARAMA	3	1,36	21	15,73	0	0,00	46	33,69	0	0,00	41	30,33	10	7,55	121	89,24
ATAUN	1	0,03	44	0,75	0	0,00	4.492	76,96	0	0,00	1.060	18,16	198	3,40	5.796	99,29
BEASAIN	14	0,45	626	30,87	0	0,00	1.483	49,55	0	0,00	456	15,22	166	5,55	2.744	91,65
ZEGAMA	5	0,15	413	11,87	445	12,77	2.064	59,25	4	0,12	431	12,39	77	2,22	3.440	96,77
ZERAIN	2	0,22	415	40,79	0	0,00	290	28,53	0	0,00	281	27,59	16	1,57	1.004	98,70
EZKIO-ITSASO	0	0,00	298	14,06	594	27,97	592	27,88	0	0,00	430	20,27	137	6,45	2.051	96,64
GAINZA	0	0,00	23	3,83	0	0,00	0	0,00	0	0,00	528	89,53	35	5,90	586	99,37
GABIRIA	0	0,00	0	0,00	39	2,63	510	34,39	36	2,42	828	55,86	32	2,18	1.446	97,51
IDIAZABAL	3	0,10	1.790	61,08	0	0,00	0	0,00	0	0,00	950	32,42	87	2,98	2.830	96,58
ITSASONDO	1	0,12	255	28,56	126	14,09	304	33,98	0	0,00	146	16,38	39	4,36	872	97,50
LAZKAO	6	0,32	530	45,76	97	8,36	217	18,75	0	0,00	158	13,61	40	3,44	1.048	90,45
LEGAZPI	12	0,29	1.091	24,48	14	0,32	1.993	47,31	71	1,68	748	17,75	160	3,81	4.029	95,65
LEGORRETA	2	0,24	266	30,89	2	0,27	324	37,64	0	0,00	143	16,62	68	7,86	804	93,53
MUTILOA	0	0,00	9	1,09	24	3,44	250	35,85	0	0,00	237	33,96	17	2,49	600	85,98
OLABERRIA	8	1,21	63	9,02	98	14,24	403	58,82	0	0,00	59	8,64	23	3,39	618	90,22
ORNAMIZTEGI	2	0,16	33	4,88	0	0,00	0	0,00	0	0,00	540	57,74	34	3,69	902	96,52
SEGURA	2	0,20	326	34,89	0	0,00	229	40,40	10	1,83	100	17,62	10	1,85	431	75,95
ORDIZA	56	9,81	25	4,44	90	11,92	362	48,10	0	0,00	190	25,23	13	1,78	671	89,10
URRETXU	16	2,07	0	0,00	0	0,00	749	44,99	19	1,13	450	27,02	89	5,37	1.633	98,09
ZALDIBIA	3	0,16	333	19,43	158	8,54	586	31,69	0	0,00	370	20,00	99	5,37	1.694	91,59
ZUMARRAGA	34	1,82	447	25,18	0	0,00	805	25,14	0	0,00	0	0,00	15	0,46	3.199	99,93
GIPUZKOKO PARTZUERGO TXIKIA	0	0,00	2.379	76,33	0	0,00	474	98,93	0	0,00	1.050	30,96	16	0,48	474	98,93
ENIRIO-ARALAR	0	0,00	0	0,00	0	0,00	2.216	68,57	0	0,00	165	66,88	0	0,00	3.393	100,00
ALTZAGA	0	0,00	72	29,65	0	0,00	2	0,99	0	0,00	0	0,00	0	0,00	240	97,65

A.2.- Biztanleria-dentsitatea (orokorra eta hirikoa).

UDALPLAN 2019	BIZTANLERIA / POBLACION			DENTSITATEAK / DENSIDADES			
	Guztira Total Biz. - Hab.	Gizonak Hombres Biz. - Hab.	Emakumeak Mujeres Biz. - Hab.	Azalera guztira Superficie Total Km ²	2 a Dentsitatea / Densidad Biz./km ² - Hab./km ²	Kalifikatutako hiritar azalera Superficie urb. calificada km ²	2 b Hiritar dentsitatea / Densidad urbana Biz./km ² -Hab./km ²
ESPARUA ÁMBITO TERRITORIAL							
E.A.E./CAPV	2.180.449	1.057.944	1.122.505	7.235,43	301,36	490,86	4.442,14
LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTORICOS							
ARABA/ÁLAVA	325.518	160.154	165.364	3.041,87	107,01	157,82	2.062,56
BIZKAIA	1.140.662	548.872	591.790	2.215,19	514,93	201,81	5.652,05
GIPUZKOA	714.269	348.918	365.351	1.978,37	361,04	131,22	5.443,31
EREMU FUNTZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES							
Goierri	69.590	34.954	34.636	430,51	161,65	15,93	4.368,32
UDALERRIAK / MUNICIPIOS							
ARAMA	209	101	108	1,36	153,68	0,15	1.428,57
ATAUN	1.723	892	831	58,37	29,52	0,41	4.161,84
BEASAIN	13.977	7.075	6.902	29,99	466,83	2,50	5.590,80
ZEGAMA	1.534	810	724	35,12	44,04	0,43	3.580,77
ZERAIN	258	119	139	10,24	25,37	0,13	1.954,55
EZKIO-ITSASO	639	342	297	21,22	30,11	0,71	895,84
GAINITZA	120	71	49	5,91	20,34	0,04	2.992,52
GABIRIA	506	286	220	14,77	34,12	0,37	1.369,42
IDIAZABAL	2.379	1.202	1.177	29,40	81,19	1,00	2.376,15
ITSASONDO	702	343	359	8,98	78,52	0,22	3.135,33
LAZKAO	5.462	2.735	2.727	11,59	471,27	1,11	4.933,16
LEGAZPI	8.428	4.266	4.162	42,09	200,09	1,83	4.596,42
LEGORRETA	1.502	777	725	8,60	174,65	0,56	2.699,01
MUTILOA	251	139	112	8,62	29,12	0,30	840,03
OLABERRIA	905	468	437	6,98	129,66	0,98	924,70
ORMAIZTEGI	1.321	665	656	6,92	192,85	0,67	1.971,35
SEGURA	1.496	754	742	9,23	160,00	0,33	4.593,18
ORDIZIA	9.720	4.744	4.976	5,64	1.711,27	1,37	7.115,15
URRETXU	6.776	3.394	3.382	7,69	899,87	0,82	8.256,37
ZALDIBA	1.630	831	799	16,65	97,90	0,32	5.125,79
ZUMARRAGA	9.868	4.852	5.016	18,50	533,69	1,55	6.348,84
PARTZUERGO NAGUSIA / PARZONERIA GENERAL	0	0	0	31,66	0,00	0,02	0,00
GIPUZKOA KO PARTZUERGO TXIKIA	0	0	0	4,77	0,00	0,05	0,00
ENIRIO-ARALAR	0	0	0	33,92	0,00	0,00	0,00
ALTZAGA	184	88	96	2,46	74,80	0,06	3.161,51

A.2.- Biztanleria-dentsitatea (orokorra eta hirikoa).

A.2.2.- Biztanleria-dentsitatea (orokorra eta hirikoa), 2019



Biztanleria-dentsitateari buruzko gogoetak (orokorra eta hirikoa).

Goierriko eremu funtzionaleko biztanleria orokorraren dentsitatea oso baxua da (161,65 bizt./km²) Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuta (361,04 bizt./km²); baina hiri-biztanleriaren dentsitatea (4.368,32 bizt./km²) altua da, nahiz eta Gipuzkoakoaren azpitik egon (5.443,31 bizt./km²), eta EAEko batez bestekotik oso gertu dago (4.442,14 bizt./km²). Hiri-dentsitatea oso desberdina da Goierriko udalerrietan; izan ere, landa-esparruko udalerriak daude, hala nola Mutiloa (840 bizt./km²), tarteko udalerriak daude, hala nola Ormaiztegi (1971,35 bizt./km²), eta baita eremu hiritarragoen trinkotasun handia agerian uzten duten udalerriak ere, hala nola Urretxu (8.256,37 bizt./km²).




A.3.- Hiri-eredua

UDALPLAN 2019	3 (a)	3 (b)	3 (c)
	Lurzoru urbanizagarria hiri lurzoruarekiko portzentaia Porcentaje de suelo urbanizable respecto a suelo urbano %	Egoitzarako lurzoru urbanizagarria urbanizagarri lurzoru osoarekiko portzentaia / Porcentaje de suelo urbanizable residencial respecto a suelo urbanizable total %	Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria lurzoru urbanizagarri osoarekiko portzentaia / Porcentaje de suelo urbanizable para AAEE respecto a suelo urbanizable total %
ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL			
E.A.E./CAPV	20,43	47,67	52,33
LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTORICOS			
ÁLAVA/ARABA	23,63	37,37	62,63
BIZKAIA	18,59	60,76	39,24
GIPUZKOA	19,61	42,95	57,05
EREMU FUNTZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES			
Goierri	21,61	27,53	72,47
UDALERRIAK / MUNICIPIOS			
ARAMA	67,04	29,16	70,84
ATAUN	6,56	-	100,00
BEASAIN	10,81	60,35	39,65
ZEGAMA	22,34	46,04	53,96
ZERAIN	91,65	41,44	58,56
EZKIO-ITSASO	63,80	2,43	97,57
GAINTZA	-	-	-
GABIRIA	14,84	100,00	-
IDIAZABAL	3,53	-	100,00
ITSASONDO	17,17	-	100,00
LAZKAO	18,09	29,07	70,93
LEGAZPI	15,43	40,70	59,30
LEGORRETA	22,59	27,09	72,91
MUTILOA	-	-	-
OLABERRIA	10,53	8,80	91,20
ORMAIZTEGI	41,91	28,27	71,73
SEGURA	6,86	100,00	-
ORDIZIA	36,30	34,71	65,29
URRETXU	1,78	-	100,00
ZALDIBIA	32,43	-	100,00
ZUMARRAGA	61,64	14,13	85,87
PARTZUERGO NAGUSIA / PARZONERÍA GENERAL	-	-	-
GIPUZKOAKO PARTZUERGO TXIKIA	-	-	-
ENIRIO-ARALAR	-	-	-
ALTZAGA	-	-	-


A.3.- Hiri-eredua

- Lurzoru urbanizagarriaren ehuneko hiri-lurzoruarekiko.



A.3.- Hiri-eredua

- Bizitegitarako eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriaren ehunekoak, guztizko lurzoru urbanizagarriarekiko.



Hiri-ereduari buruzko gogoetak


Goierriko eremu funtzionaleko lurzoru urbanizagarrien eta hiri-lurzoruen arteko erlazioa Gipuzkoakoaren edo EAekoaren antzekoa da, baina berezitasun bat du: garapen-apustu argia egiten da jarduera ekonomikoetarako lurzoruen alde, 2,5-1 erlazioarekin, lurzoru industrialen alde, bizitegitarako lurzoruekiko.

A.4.- Bizitegi-garapena. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak.

UDALPLAN 2019	4 (a). EGOITZA GARAPENA - DESARROLLO RESIDENCIAL			4 (b)
	Egungo etxebizitzak Nº de viviendas existentes Etx. - Viv.	Aurreikusten den etxebizitza gehiakuntza Incremento de viviendas previsto Etx. - Viv.	Aurreikusten den etxebizitza gehiakuntza Incremento de viviendas previsto %	Etxebizitza kopurua guztira ehun biztanlekiko Número de viviendas totales por cada cien habitantes Etx./100biz. - Viv./100hab.
LURRALDE ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL				
E.A.E./CAPV	988.095	189.049	19,13	53,99
LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTORICOS				
ÁLAVA/ARABA	153.514	49.450	32,21	62,35
BIZKAIA	511.511	80.971	15,83	51,94
GIPUZKOA	323.070	58.628	18,15	53,44
EREMU FUNTZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES				
Goierri	29.897	5.758	19,26	51,24
UDALERRIAK / MUNICIPIOS				
ARAMA	52	26	50,00	37,32
ATAUN	597	204	34,17	46,49
BEASAIN	6.141	1.270	20,68	53,02
ZEGAMA	644	139	21,58	51,04
ZERAIN	51	36	70,59	33,72
EZKIO-ITSASO	155	64	41,29	34,27
GAINITZA	28	0	-	23,33
GABIRIA	106	41	38,68	29,05
IDIAZABAL	813	40	4,92	35,86
ITSASONDO	344	141	40,99	69,09
LAZKAO	2.492	572	22,95	56,10
LEGAZPI	3.875	1.072	27,66	58,70
LÉGORRETA	646	191	29,57	55,73
MUTILOA	64	6	9,38	27,89
OLABERRIA	510	81	15,88	65,30
ORMAIZTEGI	511	254	49,71	57,91
SEGURA	641	42	6,55	45,66
ORDIZIA	4.497	258	5,74	48,92
URRETXU	2.622	403	15,37	44,64
ZALDIBIA	648	165	25,46	49,88
ZUMARRAGA	4.415	747	16,92	52,31
PARTZUERGO NAGUSIA / PARZONERÍA GENERAL	0	0	-	0,00
GIPUZKOAKO PARTZUERGO TXIKIA	0	0	-	0,00
ENIRIO-ARALAR	0	0	-	0,00
ALTZAGA	45	6	13,33	27,72


A.4.- Bizitegi-garapena. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak.

- Aurreikusitako etxebizitza-gehikuntza



A.4.- Bizitegi-garapena. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak.

- Guztizko etxebizitza-kopurua 100 biztanleko



Bizitegi-garapenari buruzko gogoetak. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak.


Etxebizitza berrien aurreikuspenak, eremu funtzionalerako batezbestekoari dagokionez, Gipuzkoako eta EAeko batezbestekoaren barruan daude. Muturreko datuak agertzen dituzten landa-esparruetako guneeetan, alde handiak daude aurreikuspenetan, hala nola Idiazabal, Mutiloa edo Seguran, eta oso handia Araman edo Zerainen. Esparru hiritarragoan, Ordiziako aurreikuspen baxuak nabarmentzen dira, etxebizitza kopuruaren hazkundera % 5,74 izatea aurreikusten baita.



A.5.- Etxebizitza-dentsitatea.

UDALPLAN 2019	5. ETXEBIZITZA DENSITATEA / DENSIDAD DE VIVIENDA		
	5 (a)	5 (b)	5 (c)
<i>ESPARRUA</i> ÁMBITO TERRITORIAL	Egoitzarako hiri lurzoruan dauden etxebizitzaren dentsitatea / Densidad de viviendas existente en suelo urbano residencial Etx./ha - Viv./ha	Hiri lurzoruan aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea / Densidad de viviendas prevista en suelo urbano Etx./ha - Viv./ha	Lurzoru urbanizagarrian aurreikusten diren etxebizitzaren dentsitatea / Densidad de viviendas prevista en suelo urbanizable Etx./ha - Viv./ha
E.A.E./CAPV	60,72	68,61	26,16
<i>LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTORICOS</i>			
ÁLAVA/ARABA	31,43	38,86	19,09
BIZKAIA	74,60	82,77	23,07
GIPUZKOA	71,37	79,34	40,75
<i>EREMU FUNTZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES</i>			
Goierri	63,35	71,42	40,53
<i>UDALERRIAK / MUNICIPIOS</i>			
ARAMA	22,91	22,91	21,49
ATAUN	26,04	34,93	---
BEASAIN	106,22	118,05	64,19
ZEGAMA	33,81	38,38	21,72
ZERAIN	12,91	16,96	13,33
EZKIO-ITSASO	9,82	13,30	58,33
GAINTZA	23,73	23,73	---
GABIRIA	11,24	12,62	10,69
IDIAZABAL	56,30	59,07	---
ITSASONDO	42,21	59,51	---
LAZKAO	65,37	73,20	65,72
LEGAZPI	51,71	61,50	45,34
LEGORRETA	51,13	61,45	49,34
MUTILOA	19,57	21,41	---
OLABERRIA	33,91	38,10	31,03
ORMAIZTEGI	62,32	73,90	38,88
SEGURA	41,86	42,54	47,76
ORDIZIA	70,27	73,45	5,28
URRETXU	86,97	100,33	---
ZALDIBIA	68,14	85,49	---
ZUMARRAGA	102,75	113,21	71,62
PARTZUERGO NAGUSIA / PARZONERÍA GENERAL	---	---	---
GIPUZKOAKO PARTZUERGO TXIKIA	---	---	---
ENIRIO-ARALAR	---	---	---
ALTZAGA	11,81	13,39	---



A.5.- Etxebizitza-dentsitatea.



Etxebizitza-dentsitateari buruzko gogoetak.

Udalerrri landatarrenetan etxebizitza-dentsitatea batezbestekoen azpitik egon arren, hain zuzen ere landa-izaeragatik, Goierriko eremu funtzionaleko esparru hiritarragoetako etxebizitza-dentsitateak trinkotasun-maila egokia eta lurzoruen optimizazioa uzten du agerian.

A.6.- Lurzoruaren artifizializazioaren eta kalifikazioaren bilakaera.



Lurzoruaren artifizializazioaren / kalifikazioaren bilakaerari buruzko gogoetak.

Artifizializazioaren eboluzio-kurbak inflexio-puntu nabarmena agertzen du, eta 2012. urteaz geroztik, hazkundeak egonkortasuneranzko joera du eta erlazio estuagoa du eusten duen biztanleriarekiko.